

400 pezeta.  
15 libera

# hik hasi

euskal  
heziketarako  
aldizkaria

34

1999ko URTARRILA

HEKO  
Kolektiboa  
gaia

Miguel Angel Santos  
elkarrizketa

Euskal Eskola  
Akordio berri bat hirugarren  
milurtekoaren atarian  
Gehigarria

Diaporama  
musika lantzeko beste modu bat  
praktikatzen

Argitaratzailea:

## XANGORIN

Zirkuitu Ibilbidea,  
2. Pabilioia. 20.160  
LASARTE-ORIA  
GIPUZKOA.

Tel: 943/ 37.15.45  
Fax: 943/ 36.10.48

Lege Gordailua: SS-1001/95  
ISSN: 1135-4690

Koordinatzailea:  
Jose Mari Auzmendi

Erredakzio burua:  
Ainhoa Azpiroz

Erredakzio batzordea:  
Itziar Barriola, Mikel Estonba,  
Arantxa Goiburu,  
Mari Karmen Irastorza,  
Kristina Mardaraz,  
Josi Oiarbide, Juanjo Otaño,  
Fito Rodriguez, Maite Saenz,  
Xabier Sarasua eta  
Arantxa Urbe.

Aholkulariak:  
Imanol Agirre, Begoña Bilbao,  
Mariam Bilbatua, Xabier Isasi,  
Irene Lopez-Goñi,  
Izaskun Madariaga,  
Kepa Perez Urraza,  
Lore Erriondo,  
Lontxo Oihartzabal eta  
Pruden Sudupe.

Diseinua:  
Zart

Maketazioa, fotomekanika:  
Xangorin.

Inprimategia:  
AN<sup>t</sup>ZA S.A.L.

Azaleko argazkia:  
Ainhoa Azpiroz

(Antton Alfaro, Elena Sarasa, Enrique  
Riño eta Joxemi Correa)

Hezkuntza, Unibertsitate eta  
Ikerketa Sailak Onetsia  
1.998/XII/15

Kopurua: 3.500 ale

5 **editoriala**

6 **kronika**

8 **gaia**

**HEKO kolektiboa**

Telebista eta hezkuntzaren artean

15 **elkarrizketa**

**Miguel Angel Santos Guerra**

23 **gehigarria**

**Euskal Eskola. Akordio berri bat  
hirugarren milurtekoaren atarian**

**EIEF-FERE**

29 **Esperientzia**

**Errioxako mugaraino**

Sartaguda eta Lodosako ikastolak

31 **Esperientzia**

**Nola bizi duten plastika Beasaingo  
Seaska Haur Eskolan**

33 **Ekarpena**

**Sarean Elkartearen V. topaketak**

35 **Berriak**

39 **Praktikatzen**

**Musika lantzeko beste modu bat:  
Diaporama**

**Ana Etxeberria**

COUNCIL OF EUROPE-  
CONSEIL DE L'EUROPE



Strasbourg  
1996ko maiatzaren 22

Aldizkari honek "aipamen berezia" jaso  
du Europako Kontseiluaren "lurraldean  
arteko lankidetzarako sustapena" pro-  
gramaren barruan.

**hik hasi**ko artikuluek edonon eta  
edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria  
aipatzea eskertuko genizueke

**hik hasi**k ez ditu bere gain hartzen  
laguntzaileek plazaratutako iritziak  
ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



*fundazioa*  
*fundación*

# hik hasi

## Irakasle

## euskaldunon

## aldizkaria



### 4.000 pezeta urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

### Zure partehartzea ezinbestekoa zaigu

# harpide zaitez!

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....  
2. Deitura .....Tel.:.....  
Helbidea .....Posta Kodea.....  
Herria.....Herrialdea.....  
Ikastetxea.....Herria.....  
IFZ .....

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**HARPIDETZA  
SARIAK**  
(BEZ barne)

Hego Euskal Herria  
4.000 pezeta  
Ipar Euskal Herria  
160 libera

**hik hasi**

Euskal  
heziketarako  
aldizkaria

Industrialdea, 2. Pabilioia  
20.160

LASARTE-ORIA.  
GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 15 45  
Faxa: 943/ 36 10 48

Hezkuntza ere Euskal Herrian dabilen  
aire berriekin doa.

URTARRILA

e d i t o

r i a l a

O

kertzeko beldur handirik gabe esango genuke amaitzeaz dagoen urte honek Euskal Herriko historian kolore ezberdina ipin lezakeela.

Hezkuntzan, azken aldian areagotuz zihoazen hezkuntza eta edukien erasoei aurre egin beharra zegoen. Herri honek, esparru desberdinetatik gero eta ozenago, bere ezaugarri eta beharrei erantzuneko dien eskola behar duela aldarrikatu du behin eta berrito. Honek guztiak, Euskal Herrian sortzen joan den eskola-ikas-tola maila guztietan errekonozitzea eskatzen du eta Administrazioek zentzu demokratiko eta anitzean ulertu, babestu eta indartu beharko lituzkete bere ahaleginen bidez (sare ezberdinetan, Haur Eskoletan...) taxutzen ari diren zentroko proiektu aurrerakoi eta euskaldun guztiak.

Bitartean, euskarak jasan dituen eraso bortitzei neurriko erantzuna eman dio gizarteko esparru gero eta zabalagoak. Eta hor dugu XXI. mendeko Akordioa, Bai euskarari! aldarrikapena.

Gizartean gertatzen ari den antzera, Hezkuntzan ere eskema dezente agortzen ari dira. Garai berriek erantzun berriak behar dituzte. Gizarteko beste arlotan gertatu den bezala ez ote da posible Hezkuntza munduan ere indar

metaketa gertatzea? Euskal Heziketan gauza gehiago dira elkartzen gaituztenak urrutzen gaituztenak baino. Oinarritzko aldarrikapen orokorren pean gaudelakoan denok bilgune komunak bilatu behar ditugu, denok elkarrekin urratsak eman ahal izateko, bakoitzaren izaera eta nortasunari zor zaion begirunearekin.

Aurten lehen urratsak eman dira norabide honetan, Ipar-Hegoa fundazioak antolatu zuen Euskal Eskolari buruzko topaketa. Bertan, euren hausnaraketak eta proposamenak plazaratuz Euskal Hezkuntzako talde esanguratsuenak bildu ziren. Ipar zein Hegokoak, gure eskolak ere lurraldetasunari erantzun behar diolako.

Hezkuntza ere Euskal Herrian azken aldi honetan dabilen aire berriekin doa. Eraikitzeke garaia da eta horretan denon ahalegina behar da, denok dugu zer esan eta zer ekarri.

Herri hau abian jarri da baina gauzak ez dira berez eta besterik gabe etorriko, orain inoiz baino beharrezkoagoak gara. Ezin dugu aukera hau nolana galdu, ahalegin handiz iritsi baikara hona.

Herri bezala eta bertan Hezkuntzako partaide bezala, leiho bat zabaldu zaigu, errepika ezina agian. Ez dezagun aukera gal. Eta jar ditzagun bideak etorkizunetan ere 1998a gogoan izateko moduko urtea izan dadin, herri honen geroa finkatu zuen abia bezala. Hala bedi!

*Izan  
dadila  
1998a  
etorkizun  
oparoa  
finkatu  
zuen urtea*



# Nafarroako Hezkuntzaren inguruko mugimenduak nagusitu dira azkenaldian

# k r o n



## Haur hezkuntza Nafarroan

Gipuzkoako Haur Eskolen egoera segurua ez bada, Nafarroan ere gauzak ez daude argi. Nafarroako Gobernuak proiektu bat aurkeztu du Parlamentuan. Bertan, 0-3 urteko haurrentzako zerbitzua gizarte-laguntza bezala planteatzen da gehienbat, eta ez zerbitzu pedagogiko gisa. Horregatik kexatu dira Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak diren Isabel Cabanellas, Alfredo Hoyuelos eta Imanol Agirre. Hauen ustez, proiektu hau egiterako orduan ez da arlo horretako irakasleen iritzirik jaso. Eta ondorioz, gizarte-zerbitzu bezala planteatu da. Haurrek behar duten moduko heziketa jasotzeko eskubidea dutela azpimarratu dute irakasleok, eta ez zerbitzu soil bat. 0-3 urteko haurrentzat zentroek ez dute haurrak gordetzeko lekuak izan behar, haur horien gaitasunak lantzeko tokiak baizik.

Bestalde, aipatu proiektu honetan zentro pribatuak hobetzeko apustua egiten du Gobernuak, eta ez bere esku dauden zentroak. Hots, alde batetik, pribatuen sarean 40 hartzaindegi pribatu daude Nafarroa osoan barreiaturik. Eta bestetik, sare publikoan Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizatearen eta Udalen eskuetan daudenak biltzen dira. Gobernuaren asmoa hartzaindegi-haur eskola eredu bultzatzea da, baina zentro berriak sortu gabe, kostu handia suposatuko bailuke horrek. Eredu honetan bilduko lirateke gaur egungo hartzaindegi pribatuak eta publikoak. Hezkuntza departamenduak egindako kalkuluaren arabera, 7.000 haurrek eskatuko lituzkete zerbitzu hauek. Kostua, berriz, 2.000 eta 15.000 milioi artekoa izango litzateke urtero.

Antolaketa gain, kezka sortzen duen beste gaia zentro hauen erantzulea da, hots, nor ote den antolaketa guztiaren antolatzaile eta arduradun. LOGSEren arabera Gizarte Ongizatearen esku dago hori, baina Hezkuntza ala Zerbitzu Sozial bezala? Hor dago koska. Momentuz, Hezkuntza Departamendua "koordinatu, bermatu eta planifikatzeaz" soilik konprometitzen da. Zentroen zuzeneko ardura eta bultzada gainontzeko administrazio publikoen eta inizatiba pribatuen eskuetan uzten du.

## Javier Markotegiren dimisioa eskatu du Sortzen-ek

Abenduaren 19an kalera atera ziren ehundaka lagun Sortzen-ek egindako deialdiari erantzunez. Nafarroan euskarazko irakaskuntzak dituen arazoei konponbidea emateko eta erasoak gelditzeko eskatu zuten manifestaldian.

Alde batetik, Iruñeko Ermitagaña, Mendebaldea eta Donibane auzoentzat D eredu ikasteko zentroa eskatu zuten. Bestetik, Ermitagañan eskolatu gabe dauden 16 haurren egoera gogorazi zuten. Oro har, Nafarroako Gobernuak euskararen aurka duen jarrera salatu nahi izan zuten. Azken bost urteotan D ereduak izan duen gorakadaren ondorioz sortu omen da jarrera hori.

Honen eta gainontzeko arazoaren erantzukizuna Nafar Gobernuko Hezkuntza kontseilari eta zuzendari diren Javier Markotegi eta Santiago Arellanori egotzi die.

Era berean, Sortzen-ek deituriko manifestazio baten aurka Poliziak izan zuen jokabidea dela eta, Espainiako Kongresuak Gobernuari ikerketa egin dezan eskatu dio. Sortzen-en ustez gertatutakoaren erantzule Javier Markotegi da, eta horregatik bere dimisioa eskatu zuten manifestaldian.



“Haurraren entengabeko presentean beti kreazio bat dago: umea hizkuntza sortzen ari da, gauzak izandaten ari da, bere burua sortzen ari da, errealitatearekiko komunikazioa eraikitzen ari da”. (TXEPETX)

# i k a



## Testuliburuak doan; bai ala ez?

Momentuz galdera horren erantzuna ezezkoa da. Nahiz eta CEAPAK (Guraso Elkarten Espainiako Konfederazioak) lege proposamen herrikoia aurkeztu Kongresuan, honek atzera bota zuen PP, CIU eta EAJren botuekin. CEAPAK 600.000 sinadura bildu zituen, behar direnak baino 100.000 gehiago. Bere proposamena testuliburuak dohainik eskaintzea zen, konstituzioaren arabera oinarritzeko hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa dela oinarrituz. Neurri horrek 21.000 milioi pezeta-ko gastua (840 milioi libera) supo-

satuko luke urtero Administrazioarentzat. Horietatik 8.000 milioi pezeta (320 milioi libera) MECeko lurraldeari egokituko litzateke eta 12.000 milioi pezeta (480 milioi libera) eskuduntzak dituzten Komunitate Autonomoei.

PP, CIU eta EAJk Hezkuntza eta Kultura Batzordearen barruan gai hau sakonago aztertzeko azpibatzorde bat eratzea proposatu dute, eta momentuz CEAPAREN eskaera ez onartzea.

Dena dela, CEAPAKoak ez daudela guztiz ezkor esan behar da. Adierazi dutenaren arabera, gaia Kongresuan aztertzea aurrerapausoa da eta testuliburuak doan izateko lanean jarraituko dutela azaldu dute.

Eskola Liburu eta Materialen Argitaletxeen Elkarte Nazionala (ANELE), berriz, neurri honen aurka agertu da argi eta garbi. Liburudenda askoren itxiera ekarriko omen luke neurri horrek eta ikasleek beraien liburutegia osatzeko oztopo izango omen litzateke.

Sindikatuak, bestalde, gurasoen eskaerarekin bat etorri dira. Botere publikoek konstituzioak dioena bete behar dutela uste dute.

## Euskarazko aisialdia kinka larrian Iparraldean

Iparraldean Uda Leku elkarteak antolatzen ditu euskarazko aisialdiko ekintzak. Orain dela 20 urte sortu zen elkarte honen helburua haur eta gazte euskaldunei aisialdiaren arloan zerbitzu zabal eta ahal bezain ona eskaintzea da. Baina egun, helburu hori aurrera eramateko arazo ekonomikoak ditu. Nahiz eta zerbitzu publikoa izan, ez du arlo berean lanean ari diren gai nontzeko elkarteek bezala botere publikoaren laguntza jasotzen. Bi milioi liberako aurrekontua du (50 milioi pezeta inguru) eta botere publikoarengandik %9 soilik eskuratzen du. 200.000 liberako (5.000.000 pezeta) zuloa du momentu honetan.

Gauzak horrela, François Bayrouri, Hautetsien Kontseilu Nagusiko lehendakariari, gutun bat igorri zioten egoeraren berri emateko.

Gaur egun 1.522 haur eta gazte inguru izaten dira Uda Leku elkarteak antolatzen dituen opor egonaldietan eta 3.364 bilguneetan. Haurtzaindegi bat ere sortua du elkarteak eta Amikuzen bilgunea irekia ere bai. Hau guztia aurrera ateratzeko 14 langile hartu behar izan ditu, eta horrek ere, noski, kostuak igo egin ditu.

# GAIA

# HEKO Kolekt

**D**uela hiru urte sortu zen HEKO kolektiboa, baina orain aurkeztu da publikoki. Heziketa eta komunikabideak uztartu, ikertu eta landu nahi dituen kolektiboa da. Komunikabideen artean telebista hartu du azterketa eta lan objektu

bezala eta hori landu du hiru urteotan helduekin, haurrekin, gaztetxoekin eta gurasoekin. Hemendik aurrera bide horretan jarraituko du, baina proiektu eta ideia berriak ere baditu. Horietan parte hartzeko deia luzatzen die interesa eta gogoan duten guztiei.



# iboa



## Telebista eta heziketaren artean

Komunikabideek heziketan duten eraginagatik interesatuta eta kezkatuta dagoen irakasle talde batek sortu zuen HEKO (Heziketa eta Komunikazioa) kolektiboa orain dela hiru urte. Abenduaren 10 eta 11an Donostiako Magisteritza Eskolan burutu ziren Heziketa eta Komunikabideei buruzko jardunaldietan aurkeztu zen publikoki kolektiboa. Orain arte sei bat lagun jardun dira gaia aztertzen eta lanak egiten, baina jende gehiagoren parte hartzea beharrezkoa ikusten dute. Horregatik, jardunaldietakoa ez zen aurkezpen soila izan, aurrerantzean kolektibo honetan eskuhartzeko gonbidapen bat baizik.

Gonbidapen hori egin zutenen artean daude Elena Sarasa Hernaniko Elizatxo ikastolako irakaslea, Antton Alfaro Lezo Herri Eskolako aholkulari psikopedagogikoa, Enrique Riaño Hernaniko Helduen Hezkuntzako irakaslea eta Joxemi Correa Gipuzkoako Irakasle Eskolako Teknologia Berrietako irakaslea.

Gaur egungo komunikabide mota ezberdinek (irudia, zinea, telebista, irratia, prentsa, internet...) gure gizartean eta norberaren hezkuntzan izan dezaketen garrantzia kontuan hartuz, ikasgeletako eguneroko lanean hori aztertzea beharrezko ikusten dute hauek. Horixe baieztatu digu Joxemi Correak: "Komunikabideen aurrean kritikotasuna eta hausnarketarako gaitasuna izatea oinarritzotzat jotzen ditugu, bai norberaren

garapena osatzeko, bai komunikabideen hobekuntza bultzatzeko. Komunikabideen irakaskuntzak garrantzi handia du, baina ez zen ezer egiten horren inguruan. Horregatik hasi ginen elkartzen".

Elkartu eta gai hau adin ezberdinetako Hezkuntza Plangintzetan era sistematiko eta antolatu batean emeki-emeki txertatzen hasia izan da kolektiboko kideen asmoa. Lan honetan garrantzi handia eman diote Haur Hezkuntzatik hasi eta Helduen Hezkuntzaraino lantzeari. Horregatik bildu dira maila ezberdinetako irakasleak HEKOn. Denak ados daude hori oso positiboa dela baieztatzerakoan. Enrique Riañok dioen bezala "hezkuntza prozesua lotuta dago, hau da, maila bakoitza ez dago berezirik. Prozesua hasieratik bukaeraraino ikusi behar da eta ikuspuntu zabal batekin". Unibertsitateko irakasle den Correa ere ados dago: "Unibertsitateko irakasleentzat, eta bereziki helbururik garrantzitsuena bezala hezkuntza daukagunontzat (irakasle eskolakoak, pedagogikoak...), ezinbestekoa da hezkuntza prozesuko maila guztiekin harremana izatea. Hori ikertu behar dugu, eta horretarako praktikan dagoen jendearengana hurbildu behar dugu zer pentsatzen duten eta zer egiten duten ikusteko eta denok elkarrekin zer egin dezakegun jakiteko. Guk goitik zerbait eskaintzen baldin badiegu, ez dute ulertzen eta alferrik

"Lan honen helburua ikus-entzunezkoetan alfabetatzea da. Komunikabideek gugan eta gizartearengan izugarrizko eragina dutela ikusirik, jarrera aktiboa lortzea, alegia"





**Antton Alfaro, Elena Sarasa, Enrique Riaño eta Joxemi Correa**

da. Gure ardura maila ezberdinetako irakasleekin elkartzea eta elkarrekin ikertzea da. Hori da unibertsitatearen erantzukizuna”.

Idea hau oso garrantzitsua da eta horrela uste dute beste mailetako irakasleek ere. Antton Alfaren ustez “perspektibak oso desberdinak dira. Unibertsitatekoek, asko irakurri arren, askotan eskola bat zer den ez dakite. Guk ere oso urrun ikusten dugu unibertsitatea eta ez dakigu zer aporta dezakegun”.

Honen aurrean, maila ezberdinetako irakasleen artean landu duten harreman eta elkarlan hori izan da HEKOko kideek atera duten ondorio baikor bat. Denen artean motibazio baten arabera eta elkarrekin gartu dute orain arteko lana.

Horrez gain, beraiek dioten bezala, talde multiprofesionala da. Hots, irakaskuntza mundutik kanpo dagoen jendea ere hurbildu arazi nahi dute: kazetariak, komunikabideetan lan egiten duten beste profesionalak, psikologoak, pedagogoak... Correak dioenez, gainera, estatu mailan profesional ezberdinak biltzen dituen lehenengo taldea da. “Kataluniatik

hartu genuen ideia hori. Hango taldeekin harremanetan jarri gara, haien esperientzia ezagutu dugu eta bide beretik abiatu gara”. Euskal Herri mailako taldetxoa sortzea proposatzen dute, nahiz eta oraingoz gehienak gipuzkoarrak eta irakaskuntza arlokoak izan.

Asmo horren barruan sartzen da kontsumitzaileen elkarteekin, guraso eskolekin eta abarrekin harremanetan jartzea ere. Helburua jendea elkartu, iritziak, ikuspuntuak eta kezak azaldu eta proposamenak egitea da, eta hori gizarteko erakunde eta sektore ezberdinekin. “Izan ere, heziketa normalean eskolarekin lotzen dugu, eta ez da zuzena” dio Alfarak. “Heziketa bizitza osoan zehar burutzen da eta telebistaren aurrean gaudenean ere heziketa prozesu baten aurrean gaude. Beraz, heziketaz ezin dugu irakasleok bakarrik hitz egin, gizarte osoa da hezitzailea. Bakoitzak bere ikuspuntutik eta prestakuntzatik aporta dezake zerbait, guztiok baikaude heziketa prozesuan inplikaturik”.

**Jende ezberdina eta lan**

## ezberdinak

Talde multiprofesionala izanik eta komunikabideen mundua zabal dela kontuan harturik, HEKOko kideek lan asko egin daitekeela uste dute. Momentuz telebistaren inguruko zenbait programa eratu eta praktikan jarri dituzte, baina proiektu eta ideia gehiago ere badituzte. Horregatik, kolektiboaren antolaketa arlo eta talde ezberdinetan aurrera eramateko asmoa dute. Elena Sarasak dioen bezala “kide guztiok maila berean egongo gara, baina bakoitza talde batean egoteak lana banatzea eta eraginkortasuna areagotzea ekarriko ditu. Momentuz bost talde aurreikusi ditugu, baina gehiago ere sor daitezke. Hori parte hartzaileen eskutik egongo da”.

Sarasak aipatu bost taldeak hauek dira:

- **Prestakuntza:** telebista lantzeko irakasleak prestatu behar dira, eta hori bideratzeko materiala, programak, ikastaroak eta abar antolatzeko izango litzateke talde honen ardura. Helduekin, haurrekin, gazteekin, gurasoekin... lan daiteke telebista, eta horiek guztiak aintzat hartu behar dira.

- **Ikerketa:** ikerketak egin, materialak diseinatu eta abar egingo luke talde honek.

- **Komunikazioa:** proiektuak, ideia, proposamenak... bideratu edo gizarteratzeaz arduratuko litzateke.

- **Antolaketa:** talde honek antolaketa mailako lanak egingo lituzke.

- **Salaketak:** komunikabideek legea hausten duten kasuan, salaketak egin eta prozesua aurrera eramateaz arduratuko litzateke taldetxo hau. Kolektibo askok egiten badute hori, agian zerbait lor liteke.

**Aztergaia: telebista**

Ikus-entzunezkoen arloa oso zabala da eta gaur egun komunikabide asko erabiltzen ditugu: irratia, telebista, prentsa, zinea, internet... Guztiek daukate eragina gugan, baina HEKO kolektiboa momentuz telebistan zentratu da. Sarasak dioenez, “telebista izan da gure gai kuttunena eta erakargarriena. Zergatik? Irratia eta prentsarekin konparatuta gauza gutxi egin delako. Ikus-entzunezkoen arloa ez da asko ukitu, batez ere irudien hezkuntza. Ia-ia programaketa guztietan agertzen da telebista aztergai eta jorragai bezala, baina praktikoki ez da ezer aurkitzen. Horregatik hasi ginen telebista aztertzen”.

“Hala da, irakaskuntzan sekulako hutsunea ikusten genuen gai honetan” gaineratzen du Correak. “Telebista gero eta garrantzitsuagoa da. Eboluzio iraunkorrean dago, gauza berriak asmatzen dira: kate pribatuak, digitala... eta eragin izugarria du gizartean. Ez dakit errealitatea eraikitzen duen, baina telebistaren bidez bizitzen ari garela bai, hori bai. Afganistani buruz dakiguna, telebistaren bidez dakigu”.

Telebistari buruz asko hitz egiten dela diote, baina gero eskoletan ez dela modu aktiboz erabiltzen. Gaur egun zentro gehienetan edo guztietan daude bideoa eta ordenagailuak, baina zein erabilpen egiten da berauekin? “Askotan bideo bat bi orduz ikusi eta horretan bukatzen da. Telebista bideoa ikusteko soilik erabiltzen da ia-ia ezer komentatu gabe ondoren” Sarasak dioenez. Beraz, telebista bere horretan ez da aurrerapen bat gero ez bada egoki erabiltzen. “Ordenagailuak ere oso modernoak dira eta denok erabiltzen ditugu. Baina zertarako?”.

Horrez gain, bideoak erabiltzen direnean, normalean bideo hezitzaileak izaten dira, eskolarako prestatutakoak: Europako ibaiak, National

# GAIA

## HEKO Kolektiboa

### Telebista eta heziketaren artean

Geographic... “Hauek ikustea ongi dago” dio Enrique Riañok, “baina telebistan agertzen diren programak ikustea hobe da. Hori da haurrei eta helduoi gustatzen zaiguna eta hori da aztertu behar duguna. Zergatik ez dugu Dragoi Bola ikusten eta horren azpian dauden jarrerak, baloreak, pertsonaiak, koloreak, planoak eta abar aztertzen?”.

Beraz, telebistaren erabilpena ikeritzeko eta aztertzeko telebistako programazioa lantzea proposatzen dute. Albitegiak, marrazki bizidunak, reality showak... Programa horiek hartu, deskodifikatu eta jarrera kritikoa lortzen saiatzen dira.

Lan honen helburua ikus-entzunezkoetan alfabetatzea da. Komunikabideek gugan eta gizartearengan izugarriko eragina dutela ikusirik, jarrera aktiboa lortzea, alegia. Hots, prozesu komunikatiboak pasiboki ez onartzea.

“Komunikabideen aurrean kritikotasuna eta hausnarketarako gaitasuna izatea oinarrizkotzat jotzen ditugu”



# Telebista lantzeko programak



Hiru urte hauetan egindako lanaren ondoren, HEKOko kideek telebista lantzeko programak osatu dituzte. Helduentzat, gurasoentzat, haurrentzat eta gazteentzat egin dituzte, adin eta maila guztietan lan daitekeen gaia baita.

## DBHko programa

Programa hau ikasturte osorako prestatua dago, ikasgai bezala kurtsu osoan lantzeko. Baina gaur egun Ikus-entzunezkoak ikasgai bezala ezarri gabe dago. LOGSEren arabera Plastikarekin batera lantzeko gaia da, hots, Plastika eta Ikus-entzunezkoak ikasgaian. Noski, ikasgai honen barruan eta ikus-entzunezko gaietan murgildurik, telebista, irratia, prentsa... lan daitezke.

Lasarte-Oriako institutuan iaz Telebista jorratu zuten. Elena Sarasa ibili zen irakasleei laguntzen eta programa koordinatzen. "Hiru hilabetez jardun ginen gai honekin, ez ikasturte osoan eta horrek programa baldintzatzen du, noski. Dena dela, denbora horretan hainbat gauza egin genituen: ikerketak, publizitatea, produkzio propioa... Gazteak oso gogoko duten gaia da eta oso ondo atera zen".

Ondorio bezala denbora gehiagoren beharra eta irakasleen prestakuntzaren beharra aipatu ditu Sarasak. Alde batetik, hiru hilabetetan gaia sakonki jorratzeko denborarik ez duela ematen dio, eta nahi diren ondorio guztiak ez direla lortzen. "Adibidez, iragarkiak egiten dituztenean, gauza asko kopiatu egiten dituzte eta beraien sormena asko landu gabe gelditzen da".

Bestetik, irakasleen interesa eta prestakuntza falta kontrajartzen ditu. Irakasleen interesa ikusirik,





hauei lagunduko dien prestakuntza beharrezkoa dela uste du Sarasak. Aparailuak erabiltzen jakiteaz gain, prestakuntza handiagoa behar da eta horren gabezia nabaritzen dela dio.

### Helduentzako programa

Telebistaren gaia Helduen Hezkuntzan lantzeko ere programa berezia prestatu dute, Eusko Jaurlaritzak saritu zuena, hain zuzen ere. 30 orduko saio da, bi orduko 15 saiotan banatua dagoena. Riañok argitu digunaren arabera “hasieran ebaluaketa bat eginez hasten gara. Telebistari eta, oro har, ikus-entzunezko medioei buruzko galdeketa da”. Ondoren, hasierako saioetan telebistan zer egiten den, nola egiten den, nolakoa den... aztertzen da. Eta hurrengo saioetan, produkzio bat egiten dute. Tartean zenbait herri telebistetara bisitaldia burutzen dute. Eta azkenik, bukatzeko, berriz ere galdeketa bat egiten dute, hasierakoaren eta bukaerakoaren arteko ezberdintasuna ikusteko. Saiok oso praktikoak dira eta parte hartzea bultzatzeko pentsatuta daude.

Iaz Helduen Hezkuntzako sei zentrotan ipini zuten martxan programa hau: Donostian, Herreran, Lasarte-Orian, Andoainen, Hernanin eta Arrasaten. Riañok dioenaren arabera, leku batzutan saio batzuk gehiago landu dira, eta beste leku batzutan beste saio batzuk. Baina guztietan oso ongi atera zela azpimarratu du. “Oso gai erakargarria da eta lantzeko ongi prestaturik dago. Gainera, heldu asko alfabetatu gabeak direla kontuan izanik, telebistaren aurrean kaltetuenak izan daitezke prestakuntza maila bajuagoa dutelako. Nik uste dut hori garrantzitsua dela eta egia esan, oso pozik gelditu ginen emaitzarekin”.

### Gurasoentzako programa

Hasieran gurasoentzat bereziki

# GAIA HEKO Kolektiboa Telebista eta heziketaren artean

prestaturiko programarik HEKOko kideek. Baina eskaera etorri zaie, eta horri erantzun die. “Trintxerpeko Karmengo Ama ikastetxetik deitu ziguten gai hori lantzeko prest al geunden galdetuz. Badakigu gurasoak oso kezkatuta daudela gai honekin, baiezkoa esan genien urtarrilean hasiko gara” dio Antton Alfarok. “Helduentzat prestaturiko programa moldatzen ari gara telebistaren gaia gurasoekin lantzeko. 13 ama bilduko dira asteartero eta ama edo guraso bezala joango dira. Hau da, telebista ikusle bezala ezezik, seme-alabengan telebista duen eraginaz kezkatuta daude”.

Gurasoekin erabiliko den metodologia ikasle eta helduekin erabili izan dutenaren berdina izango da. Hots, ez dira ohiko klase magistralak izango, praktikoak eta norabide anitzekoak baizik. Guztien parte hartzea bultzatuz, iritzi guztiak aintzat hartuz eta adostasunera iritsiz lantzen

“Ia-ia programaketa guztietan agertzen da telebista aztergai eta jorragai bezala, baina praktikoki ez da ezer aurkitzen. Horregatik hasi ginen telebista aztertzen”



da gaia. “Telebista programak ikusi, horren inguruko eztabaidak bultzatu eta ondorioak ateratzen dira”.

Guztiak argi dute programa hauetan irakasleak bitartekari izan behar duela.

### Irakasleen prestakuntza

Bitartekari lan hau burutzeak irakaslea ikasleen gainetik ez jartzea suposatzen du, hots, ez du bere esanahia inposatu behar, denon iritzia entzun eta denon artean komentatu baizik.

Dena dela, klaseak aurrera eramateko prestakuntza bat behar da, irakaslea baita, azken finean, klasearen gidari (nahiz eta ikasleen araberako erritmoa eraman). HEKOko kideek prestakuntzaren beharra nabaritu dute. Baina nola bideratu prestakuntza hori? Modu ezberdinak daude.

Alde batetik, Irakasle Eskoletako ikasleak presta daitezke. Correak dioenez gai hori lantzen da unibertsitatean, nahiz eta gehiegi ez izan. “Gutxienez hasierako prestakuntzan



horrelako gaiak irakastea lortu dugu. Besteak beste, zera lantzen da: komunikabideen irakaskuntza nola bideratu, oinarriko teknologiaren kontzeptuak, lehenengo pausoak nola eman...

Bestetik, PATeko jendearekin ere harremanetan jarri dira. Prestakuntza prozesua aurrera eramateko mintegiak eta jardunaldiak antolatzea interesgarritzat jotzen dute. “Dena dela, orain arte ez dugu gauza handirik lortu. Eskaerarik ez dagoela esaten digute, baina noski, eskaintzarik ez badago eskaera hori ez da sortuko” dio Sarasak. “Inor ez dela etorriko pentsatzen dute, eta ez dituzte antolatzen. Baina mintegiak antolatu arte ezin da jakin jendeak parte hartuko duen ala ez”.

Prestakuntzarako beste bide bat lan kooperatiboa izan liteke. “Gure esperientziari buruzko hausnarketak eginez, materiala sortuz eta martxan

jarriz prozesu bat martxan jarri genuen. Eta bestetik, aldi berean, egindako lan horri forma eman eta idatzi egin dugu ikerkuntza proiektu baten barruan” dio Correak. Modu horretara egindako lana zabaldu egingen da eta gainontzeko irakasleen esku jarri.

### Bukatzeo baina... hasteko

Beraz, proiektuz beteriko talde baten aurrean aurkitzen gara. Hiru urte hauetako lanak eman dituen fruituen berri eman digute bertako kideek, baina oraindik hasi besterik ez dira egin. Proiektu anitz dituzte esku artean, ideia ugari eta gogo izugarria. Baina horiek denak aurrera ateratzeko laguntza ere behar dute. Horregatik, interesa duen orri urtarrilaren 25ean egingo duten bilerarako deia luzatzen diote. Aukera ezin hobea informazio hartu eta emateko.



**HEKOren bilkura Donostiako Irakasle Eskolan burutuko da urtarrilaren 25ean arratsaldeko 6.30etan. Informazio gehiago nahi duzuenok, berriz, telefono honetara dei dezakezue: 943 35 30 80.**



# **e**lkarriketa

MIGUEL ANGEL SANTOS

“


*Ebaluazioak praktika transformatzeko eta hobetzeko egiten dira, eta ez ezaguerak pilatzeko*

”



Miguel Angel SANTOS GUERRA

MIGUEL ANGEL  
SANTOS



“*Edozein zentroko proiektu, topiko hutsa bihur daiteke interes partikularrak dituzten edo kasualitatez etorri berriak diren irakasleez osatutako pertsonalarekin*”

**M**iguel Angel Santos Guerra Malagako Unibertsitateko Didaktika eta Eskola Antolaketa Katedraduna da. Iaz Ikastolen Elkarateak antolatutako V. jardunaldi pedagogikoetan parte hartu zuen. Ebaluazioa zen jardunaldion gaia eta Santos Guerrak kalitatearen diskurtsoaren arriskuei buruz hitz egin zuen. Hezkuntza kalitatea eta ebaluazioa dira elkarrizketa honen ardatz.

Zer deritzozu merkatal eremu-  
tik eskolara jausi zaigun hezkun-  
tzaren “kalitate” honi?

Horixe da, hain zuzen, gaur egun hezkuntza munduan diharduten politikoek, gurasoek, irakasleek eta ikasleek aldarrikatzen dutena: hezkuntza kalitatearen beharra. Badaezpada, aspaldi honetan definizio abstraktuen oso lagun egin garenez gero, eta hezkuntzaren kalitatearen inguruan hainbeste balore, interes, arrazoi, aukera eta asmo dabilenez, haren esanahia argitzea komenigarria litzatekeela iruditzen zait. “Egiazko kalitatezko irakaskuntzak geroz eta kontzientea-go, arduratsuago eta gaitasun handiagokoak izaten lagundu behar die ikasleei, beren ezaguera eta helburu arduratsuekin eurengan eta bere inguruan eragin ahal izateko”, eta horrelakoak esaten dira. Era honetako definizio abstraktuek, ordea, duda asko sortzen dizkigute, ez baitigute haren praxiaren nolakotasunaren arrasto txiki-kerik ere uzten. Nola eragin dezake gazte batek bere ingurunean? Nola-koa izan beharko luke eragin horrek baikorra eta onartua izateko? Nola ebaluatu hori? Nork? Noiz?

Bestalde, ona litzateke horrelako definizioak euren kontestuetan koka-

tzea. Protagonistek beraiek izan beharko lukete hezkuntza kalitatearen definizioaz gogoeta egin eta etengabeko prozesu demokratiko batean oinarrituz hura garatu beharko luketenak. Gainera, hezkuntza kalitateaz mintzatzeko kontzeptu zabalago batera eramaten gaitu, gizartearenera alegia, edota kontzeptu murriztuago batera, hots, hiritar bakoitzarengana.

Halere, zein kalitateri buruz ari gara hitz egiten prozesuaren bukaeran arrakastatsuenak izatera ailegatzen direnak, hots, agintariak, ez badira kapaz opresioa, pobrezia, ezberdintasunak, injustizia desagertarazteko?

**Zein azterketa egin beharko litzateke, beraz, kalitatea definitzeko?**

Kalitatea definitzerakoan ezinbestekoa da dugun gizarteaz eta nahiko genukeen gizarteaz gogoeta egitea. Inorentzat ez da berria neoliberalismoa guztia ari dela inbaditzen: eraginkortasuna, lehiakortasuna, demokrazia ekartzeagatik liberalismoari diogun zorra, paregabeko soluziobideak diren merkaturako legeak, giza izarearen berezko korrupzio eta aldearen onarpena, pribatizazioak, finantza sistemen arau eza, indibidualismoa, produktibitatea, eklektizismoa...

Eskolak, aldiz, ezberdintasunak gaintitzean, justizia eta dibertsitatearen errespetuan, ulermenean, kritika eta analisiaren garapenean oinarritu behar du. Zein paper jokatzeko du, orduan, hezkuntza sistemak horretan guztian? Nola ezkontrazi funtsean kontrakoak diren bi joera hauek?

**Zein eskola eredu bultzatzen du neoliberalismoak?**

Neoliberalismoak deszentralizatua eta gerentzia-kutsuko eskola bultzatzen du. Errendimendua ardatz duen enpresa bat bilakatu nahi da eskola. Alerta argia piztu nahi dut nik horren guztiaren atzean tranpa handi bat dagoelako. Zenbakarriak diren helbu-



ruak, froga estandarizatuen erabilera, sinplifikazioak eta zientziaren sasi-neutraltasuna aldarrikatzea tranpa hilgarriak bihurtzen dira “lurreko behartsuenentzat”, Freirek esan zuen bezala.

### **Zabalduko al zeniguke hau?**

Nik nabaritzen ditudan tranpa hauetako bat gehiegizko sinplifikazioarena da. Adibidez, eskolan arrakasta izatea emaitza akademikoaren arrakastarekin identifikatzearena. Eta hau gainera, adimenaren funtzio aberatsenak (ulermenarena, analizatzearena, konparatzearena, iritzia ematearena, sortzearena...) kontuan hartzen ez dituzten froga estandarizatuen bidez egiten delarik.

Kalitatea bera ere kaliterako baldintzekin nahastu egiten da, hots, instalazio onak edukitzeak, irakasle-ikasle ratio txikiak edo bitarteko didaktiko ugari izateak ez dute berez kalitatea bermatzen. Instalazio horietan torturatzen ari daitezke, eta bitartekoak ukitu gabe gordeta.

Halaber, kalitatearen funtsezko elementuak bazterrean uzten dira, hezkuntza prozesuen etika, esaterako eta hezkuntza ekintza morala denez, ezin dugu etika ahaztu.

Teknikifikazioarena da beste tranpa bat. Uste da zehatza eta objektiboa zenbakitan ematen dena bakarrik

dela, baina hezkuntza den bezalako ekintza konplexua ezin da horrela neurtu.

Edonor bat etorriko litzateke benetako hezkuntza kalitatea baloreetan eta prozesuetan datzala esatean, baina garaia heltzen denean, esparruen konplexutasunagatik edo baloratzeko bitarteko faltagatik edo denbora premiagatik edo... azkenean emaitzen neurketara jotzen da beti.

Pertsona, esperientzia eta ikastetxeen arteko konparazioak egiteko arriskua ere badago, hots, konparaezinak diren errealitateak konparatu eta ahulen ezberdintasunak areagotuko dituen erabakiak hartzearen arriskua sortu, hain zuzen.

Bestalde, gerta daitekeena da informeen emaitzen manipulazioa ere egitea, adibidez boterearentzat kaltegarria den zatiren bat ezkutatzuz.

### **Zein ondoriotara garamatza honek guztiak?**

Kalitateari buruzko eztabaidak irekita egon behar luke beti, gizartea aldatuz doalako, ezaguerak ere berri-tzen eta beharrak dibertsifikatzen. Etengabeko eztabaida honetan, gainera, gizarte osoak hartu beharko luke parte, eskola gizarteari egiten dion zerbitzuan hezurmamitzen baita.

Halaber, nire iritzia da ikasleriak ezinbesteko partaide beharko lukeela

izan kalitatearen definizioan eta haren aplikazioan. Akats handia da ikasleak kalitatezko ikasketei antzemateko gai ez direla uste izatea. Gai baten edukiak ez menperatzeak ez du esan nahi kalitatezko irakaskuntzari antzematerik ez dagoenik, hori apendizera kendu dioten gaixoari ebakuntza ondo joan den ala ez jakiteko gaitasuna ukatzea bezalakoxea litzateke.

### **Zertaz jantziko zenuke, orduan, hezkuntza kalitatea?**

Benetako kalitatezko hezkuntzak ezaugarri hauek behar ditu:

- Ikasketa esanguratsu eta garrantzizkoak ahalbidetuko lituzke, eta ez ikasleentzat soilik, baita irakasleentzat ere. Eskolak ikasteko komunitate kritikoa izan behar du eta ez eztabai-daezinak eta hegemonikoak diren eza-gueren transmititzaile hutsa.

- Ikasteko gogoia esnatu, bultzatu eta garatuko luke. Jakiteko

- gogoia betiko hiltzen duten irakasle-ikasle prozesu asko daude gure artean.

- Beharrezko duen informazio guztia aurkitzeko gai izatera bultzatuko luke ikaslea, agindupeko ikaslea ez bilakatzeko eta behar duen hura bere kasa aurkitzeko kapaza izan dadin.

- Errealitatea ikertuz eta arakatzuz ezaguerak aurkitzen lagunduko luke. Ikertzaile izatea ez dagokie irakasleei soilik, ikasleentzako helburua ere behar du izan.

- Morala den praxian gauzatuko litzateke. Horrela pertsonak errespetatu, eurengan konfidantza piztu eta jakituriarekiko maitasuna bultzatuko luke. Irakaskuntza gertakari tekniko bano gehiago prozesu morala da, eta horretan erabiltzen diren bitartekoen izaerak garrantzi handia du.

- Praxi soziala eta politikoa ere bihurtuko litzateke. Okerra da zientziaren izaera neutroa eta aseptikoa dela pentsatzea. Interes askok baldintzatzen dituzte bai ikasgaiak, metodoen aukeraketak eta batik bat aurkikuntzen aplikazioak. Zientzia

MIGUEL ANGEL  
SANTOS



“*Ebalua-  
zioak ez  
lituzke  
emaitzak  
bakarrik  
aztertu  
behar, baita  
prozesuak  
ere*”

gizonezko ala emakumezkoen ikuspe-  
gitik egitea, boterearekin konprom-  
ezuak edukitzea, paradigma zientifiko  
zehatz batekiko atxikimenduak, alder-  
di politikoren bateko partaide izatea...  
nahiko baldintza dira haren asepsia  
deuseztatzeko.

- Sendo oinarritutako kritika egite-  
ko irizpide garbiak eskainiko lituzke.  
Ezaguera ez da datu, data, erlazio eta  
teorien taula osatu bat. Egiatzko jaki-  
turia ezaguera horien balioetan eta  
aplikazioetan gordetzen da.

- Teoria eta praktikaren sinbiosia  
egingo luke. Ikasteak praktikarekin  
zerikusi handia du, eta praktikari  
berari zuzendua egon behar du.

- Gizartearen baloreen garapena  
ekarriko lukeen aplikazioari zuzendu-  
ta legoke. Gaien menperatze kontzep-  
tua ez da nahikoa, haren aplikazioa-  
ren teleologiaz, hots, helburuen  
ikerketaz ere galdetu egin behar du.

- Baloreen gauzatze instituzionala  
izango litzateke. Egiarekiko errespe-  
tua eta pertsonetikiko duintasuna prak-  
tika horren funtsezko elementuak  
dira. Horregatik emaitza akademiko-  
ak soilik kalitatearen oso adierazle  
urriak eta murriztuak bihurtzen dira.  
Horiekin benetako atentatua egiten  
zaio kalitatearen analisiari.

**Eta zer dagokie hezkuntzaren  
egileei?**

Aldagai askok osatzen dute proiektu  
bat eta hauen interpretazio globa-  
lak bakarrik azal dezake du benetako  
kalitatearen esanahia.

Hasteko, instituzioak ditugu. Insti-  
tuzioek ere kultura bat sortzen dute  
eta baloreak, arauak, asmoak transmi-  
titzen dituzte. Eskolen antolaketak  
ere, hots, bertan gorpuzten diren erla-  
zioek, botere egiturak, hautu edukiak  
eta metodologiak, ezarritako arauak...  
giro zehatz bat osatzen dute eta curri-  
culum formalean agertzen ez diren  
gauza asko irakasten dira haien bidez.  
Instituzioen moral bikoitzak ondorio  
tamalgarriak eragin ditzake bere par-

taideengan. Beraz, ezin da hezkuntza-  
ren kalitateaz hitz egin kultura horren  
ereduak ere aztertu gabe.

Bestalde, zuzendariak ditugu.  
Zuzendaritza da proiektu baten ingur-  
uan biltzen diren partehartzaileen  
barreiaketa eta kaosa ekiditen ahale-  
gindu beharko litzatekeena. Zuzenda-  
ritzaren funtzio aberatsenak (proiek-  
tua koordinatu, egitasmoak bultzatu,  
iradokizunak egin, gatazkak bideratu,  
galdera berriei bidea ireki, proiektua  
ebalatu...) potentziatzeko baldintzak  
bermatu beharko lirateke. Baina oro  
har, inprimakiak betetzea eta kon-  
ponketak egitea, eskola ordezkatzeta,  
asistentzia zaintzea, ordena jartzea eta  
tankera horretako funtzioek eramaten  
dute denbora, kezka eta ardurarik  
handiena. Gauzak horrela, ez da erraza  
proiektu kaxkar bat aurrera eramate-  
ko ilusioa edukitzea.

**Eta zer diozu irakasleei buruz?**

Irakasleriari gagozkiolarik lehen  
galdera bat sortzen zait: Zein irizpi-  
dez osatzen dira ikastetxeetako irakas-  
leriak? Eskola, planifikatzeko, lan  
egiteko eta aldatzeko unitate funtzio-  
nalak izatea nahi badugu, nola liteke  
arrazoi pedagogikoetatik at dauden  
arrazoia bultzaturik osatzea planti-  
lak? Honatx zentro pribatuek duten  
abantaila lan talde koherenteak, elkar-  
tuak, egonkorak eta indartsuak osa-  
tzeko unean. Edozein zentrotako  
proiektu topiko hutsa bihurtzeko  
interes partikularrak dituzten edo  
kasualitatez etorri berriak diren ira-  
kasleez osatutako irakasleriarekin.  
Alferrik izango dira legeak, zentroko  
proiektuak eta memoria guztiak hau  
aldatzen ez den bitartean. Burokrazia  
hutsan geratzen da dena.

**Gurasoek ere inplikatu behar-  
ko dute, ezta?**

Gurasoen inguruan, berriz, eskolek  
beren hezkuntza proiektuan gurasoak  
partaide izatea nahi badute, ezin dute  
gurasoak guztiaren jakinaren gainean



soilik jarri, proiektuaren egile, partaide eta ebaluatzaile ere egin beharko genituzkeelako. Elkarlan horrek eskolaren zeregina familiengana zabalduko luke. Denok dakigunez, tamalez, ez dira asko izaten konpromezu hori hartzen duten gurasoak eta haueetatik oraindik ere, gehienak amak izaten dira (familiaren barruan haurren hezkuntzaren ardura nork eramaten dueneko seinale garbia). Gainera, guraso eta eskolaren arteko harremanek okerrera egiten dute haurren adinak aurrera egiten duen heinean, ez bakarrik bileren maiztasunean, harremanen izaeran ere bai. Notak izaten dira kezka handienak orduan, eta eskolako praxiaren izaera, honen dimentsio etikoa edo pertsonen arteko erlazioak bigarren mailako gaiak bilakatzen dira. Ez da erraza izango jarrera hauen aldaketa lortzea tradizionalki gurasoen partehartzea ezereza izan denean. Baina eskoletako aginte organuetako partaidetzak, informaziorako eta eztabaidarako bilerek eta irakasleen irekitasuna eta sentsibilitateak bidea zabalduko dute alderdi horretan.

### **Giza faktoreez gain, beste zein aipatuko zenuke hezkuntzako proiektu integral hori lortzeko?**

Eraikuntzak, esaterako. Ikastetxe

bateko neurriak, objektuak, erabile-  
rak, pasabideak... denak du esanahiren bat. Orain arteko eskolak ia denak antzekoak eta era sasifuntzionalean eraikiak izan dira: errektangulu formakoak, patio eta hesi identifikagarriak eta barruan tamaina beretsuko gelak pasabide luze batera emanez. Egitura honek sortarazten duen inpresioa zera da: gelak beraiek diruditen bezalakoxe ekintza zozo, txiki eta aseptikoak burutzeko eginak direla. Ikastetxearen egiturari liburutegiak, laborategiak eta baratzak ere barneratzeak, espazio malgu eta dinamikoagoetara eramango gintuzke.

Liburutegiak, bestalde, testuliburuetan oinarritzen den metodologia haustea dakar, baita programen edukiei lotutako irakurketa eskusibista bera ere. Liburutegiak funtzionamendu kolektiboan eskatzen du eta testuliburuaren erabilerak, berriz, enfoke indibidualistaren eragina adierazten du. Geletako hormak gaintitu eta barruko espazioen erabilera malgua proposatuko nuke prozesu dibertsifikatuak bultzatu ahal izateko. Irakaskuntzaren kulturari oinarritutako ekintzak eskolaz kanpoko kulturaz ulertzen denarekin osatu beharko lirakeke. Laburtuz, hiru elementuk bermatuko lukete kalitatezko ekintza: espazio eta mate-

rial egokiak, antolaketa malguak eta irakasleek izan beharko luketen prozesuen ikusmolde dinamikoak.

### **Nolako papera izan behar dute ikasleek?**

Ikasleek ezinbesteko garrantzia dute berrikuntzak planteatzeko garaian, baina oro har beraiei uzten zaaien rola hartzaile pasiboarena izaten da. Nire ustez kalitatearen hobekuntza, ikasleei dagokienean, bi aldetatik etorriko litzateke. Batetik, ikasleek partaidetzatik, bai ikastetxeko aginte organuetan, gobernu-batzordeetan eta bai irakaskuntzako helburuak, edukiak, metodoak eta ebaluatzeko irizpideak aztertu eta eztabaidatzeko uneetan. Bestetik, ikasleek exijentziaren bidez eragina izan dezakete, huraxe izanik aldaketa emateko oinarritzko elementua. Helburu nagusia aprobatazea bada, baina ez ikastea, nota onak lortzea, baina ez ikasketa esanguratsuak burutzea, orduan, ahalgin guztiak alferrikakoak izango dira. Ikasleek exijentzia eta partaidetza interes ezarekin eta lanerako gogo ezarekin identifikatzea irakaskuntzaren kalitateari kalte handia egin dion ustea izan da.

### **Beraz, nolakoak beharko lukete izan ebaluazioek?**

Ebaluazioak kalitatearen hobekuntzarako tresna izan behar du. Arestian esan dudanez bezala, hezkuntzaren ize-  
nean egindako ezer ez da ez neutrala eta ez aseptikoa. Ezta ebaluazioa ere. Ebaluazioa egiterakoan konpromezu eta interes askorekin egiten dugu topo, ez bakarrik teknikoak, baita etikoak ere. Ebaluazioak balio dezake hierarkizatzen, baztertzen, diskriminatzen, boterearen alde egiteko. Erraz asma daiteke irakasle bat nolako den ebaluazioari buruz duen iritzia jakinda. Hark uste badu irakaskuntzaren helburua ikasleek barruetan ezaguera sartzea dela, orduan ebaluazioa ezaguera horiei buruzko galdeke-





MIGUEL ANGEL  
SANTOS



“*Ikasleriak ezinbesteko partaide izan beharko luke kalitatea definitzerakoan eta aplikatzerakoan*”

ta pasatzea litzateke. Alderantziz, eskolak pentsatzen, baloreak erresetatzen eta elkarbizitzen lagundu behar duela uste badu, orduan, ebaluazioa ere askoz konplexuago den ekintza bihurtzen da. Lehendabiziko pentsaeraren bidez baliogarria den ezaguera instituzioek dutela ari zaie esaten ikasleei, ezaguera hori transmititzeko era bakarra dagoela, eta galderei erantzuteko ere era bakarra dagoela: buruz ikasiz. Eta honen azpian, isilean, nor den botereduna eta nor den menpekora erakusten ari zaie. Beraz, hierarkizazioa eta atrofia. Ez uste izan hezkuntza sisteman azken pieza (ikasleria) soilik ebaluatzea kasualitatea denik. Ez al dute akaso ardurarik irakasleek, zuzendariak, delegariak eta ministroak?

“Ikastea oso gogoko dut, baina irakatsi behar didatenek izutu egiten naute”, zioen Churchilllek. Eta zenbat aldiz gertatzen da hau ikasleen artean? Benetako irakaslea bere ikasleak intelektualak balira bezala tratatu eta intelektualak izateko bultzatzen dituen da. Baina orokorrean gure jarduerak ez du jartzen ditugun helburuekin zerikusi handirik izaten. Irakasleek duten ezaguera, antolamendua, haren gauzatzea eta ebaluatze modua jakinmina baino gorroto gehiago eragiten dute.

**Instituzioak, ikastetxeak ere...**

Instituzioak ebaluatzerakoan errendimendua izan ohi da adierazle bakarrenetakoa. Baina har dezagun zentzuzko edozein hezkuntza proiektu. Imajina al dezakezu ikasleen askatasuna eta partaidetza murrizteko helburua esplizituki agertzen duen proiekturik? Ez. Inon ere ez. Oso alderantziz, zentzuzko kritika eta partaidetza gartzea bultzatzen dute proiektu denek. Honen praxia, ordea, beste kontu bat izaten da, eta ebaluatze modua autoritarioa eta errepikakorra seguruena. Adibidez, har ditzagun egin

ohi diren “Ehun ikastetxe onenen” zerrenda ezagunak. Telefonoz galdetzen zaie haien instalakuntza eta emaitzen inguruan, eta ebaluazioa, egina. Inguruan dabilzan interes horiek guztiak ebaluazioen informea manipulatzera eramaten dezakete. Komeni dena argitaratuko da eta boterearen propaganda egiteko erabiliko da, komeni ez dena gorde egingo da. Hau dena hezkuntza komunitatearen ezkutuan egin ere, , informea kontrola ez ditzan eta erabakiak hartzeko modurik ere izan ez dezan. Beraz, derrigorrezkoa deritzot ulertze plataformak eratzeari kontuan harturik egia osoaren jabe inor ez dela.

Honekin lotuta, egiak baditu gutxienez hiru definizio. Bata, hierarkikoa: egia agintariak egia dela esaten dutena da. Beste bat soziologikoa: gehien goak dioena da egia. Eta fundamentalista: egia da nik hala diodalako. Horregatik da garrantzitsua aipatu ulertze plataformak eratzea eta “egieren” esanahia argitzea. Eta ildo bereetik aurrera joanez, metaebaluazioen beharra ere argi dago politikoen, profesionalen, gurasoen, ikasleen, teorikoen eta administrazioko langileen iritzia jasotzeko. Kontuan izan ebaluazioak praktika transformatu eta hobetzeko egiten direla eta ez ezaguerak pilatzeko xedearekin. Beraz, partaidetza irekia behar du izan, ebaluazioaren protagonistei zuzendua, ondoren erabakiak negoziatuz hartu ahal izateko. Ezinbestekoa da ebaluazioaren prozesua demokratikoa izatea eta ebaluatzaileak lanaren erraztaileak baino ez.

**Eta afektibitatearen mailako ebaluazioa?**

Nire irudiz, eskola sentimenduen kartzela da. Eskolak ikasketa kognitibo, razional eta intelektualaren munda izaten jarraitzen du, bai ikasleentzat eta bai irakasleentzat ere. Beti egon da zutik eskoletan sentimenduekiko harresi bat, sentsibilitatea esko-



latik kanpo eutsi nahian bezala. Gure kulturak estereotipoen eragin handia du eta sentibera izatea ez dago ondo ikusita. Zentzu honetan, azken urteotan ezagutzen ari gara eskolako sentimenduen patologia: Zein da ikastaroen hasieran bere haurrak maitatzen hasi eta urte bukaeran agur esan beharrean geratzen den irakaslearen problematika? Eta horrela urteak joan eta urteak etorri? Nola eraikitzen dira sentimenduak eskoletan? Nola zahartzen gara lanbide honetan? Giro ona al dugu gure lankideekin?... Ez dago inongo zalantzarik hezkuntza afektiboaren beharra aldarrikatzerakoan, pertsonak garelako batetik, eta sentimenduak ere ulermen-bidea badirelako, bestetik. Gizakia ezin da piezatan zatitu eta esan : “Sar diezaiogun ezaguera buruan”. Nola eraikitzen da komunikazioa? Erlazioak? Ikaslea? Zer egin estereotipo eta patrio kulturalen ezkutuko curriculum horrekin guztiarekin? Bistan da zeinen garrantzitsua den afektibitatearen prozesua aintzat hartzea. Identitatearen garapena, estereotipoak zalantzan jartzea, ezaguera kritikoa bultzatzea, giza sexualitatearen inguruko mitoen eta sinesmen faltsuen haustura, beldurrak kanporatzea eta erruduntasuna kentzea, errespetuzko eta lankidetzazko harremanak bultzatzea, dependentzia afektibodun erlazioak ekiditea, egiazko elkarrizketa bultzatzea, pertsonen arteko erlazioak garatzea... hau guztia ebaluatu beharrekoa da.

Baina ebaluazio honek ez luke zentzu handirik izango ez bagenie geure buruei galdetuko zergatik ez ebaluatu hezkuntza afektibo-sexuala ere. Razionalitate printzipioak eramango gintuzke egiten ari garen lanaz hausnartzera eta hark erakutsiko liguken aurrera egiteko jarraibideak erakutsiko lizkiguken. Ardurazko printzipioak erakutsiko liguken egiten dugun lana oso garrantzitsua dela eta bertatik garapena edo ondorio txarrak etor litezkeela. Eta azkenik, hobekuntza

printzipioak, behin egoera ezagutuz gero, hura aldatzeko neurriak hartzera bultzatuko gintuzke.

Hemen ere arazoa denok ebaluaziorari buruzko iritzi berekoak garelako uste izatea da.

### **Nolakoa izan beharko luke taxuzko ebaluazio jator batek?**

Lehenik eta behin ebaluazioak ez lituzke emaitzak bakarrik aztertu behar, prozesuek ere aztertuak izan beharko lukete.

Partehartzaile guztiek askatasun osoko baldintzatan izan beharko lukete ebaluatuak. Batzuetan, zenbait ebaluaziotan, galdetzen zaio ikasleari: zer iritzi duzu nitaz (irakasleaz)? eta itun honek eskopeta asko (emozionalak barne) ezkututzen ditu.

Jakin beharko genuke autoritarismoa, latinezko “auto, autere”tik datorrela eta “hazarazi” esan nahi duela. Hölderlinek zioen: “Hezitzaileek itsasoak kontinenteak moldatzen dituen bezalaxe moldatu beharko lituzkete beren ikasleak, hots, baztertuz, atzertuz, ez zanpatuz eta ez ureztatuz”. Hau ondo ulertzeko komenigarria da hainbat bereizketa egitea, sozializazioaren eta hezkuntzaren artekoa, adibidez. Sozializatzea ikasleak kulturara ekartzea da, eta hezitzea, berriz, kulturara “kritikoki” ekartzea. Doktrinatzeta eta baloreetan hezitzea ere bereizi beharko genituzke. Doktrinatzeta duenak ere baditu baloreak, baina hark ez dio indibiduoari baloreak errefusatzeko aukerarik ematen. Hezitzaileak, aldiz, aukera hori onartu eta eskaini egiten du.

Ebaluazioa energetikoa litzateke aurrez hasieratik bukaeraino planifikatua izango ez balitz eta prozesuak irauten duen bitartean gelan sortzen dena jasoz jardungo balu. Benetako hobekuntzari zuzendua legoke eta prozesuan dauden egoera artifizialak antzemango lituzke. Ebaluazioa praktika moral bat izanik baloreak ere kontuan izango lituzke.

Ebaluazio honetan inork ez du egia-  
ren pribilegiarik, ez dago interpre-  
tazio baliagarri bakarra duen talde-  
rik. Demokratikoa izango litzateke,  
prozesuaren eta informeen kontrola  
protagonisten esku egongo litzate-  
keelako.

Beraz, ebaluazio holistikoa litzate-  
ke, hau da, pertsonak, denborak, lege-  
ak, bitartekoak eta kontestua kontuan  
hartuko dituen. Teoria handiak ez  
dira normalean kontestuetara ondo  
egokitzen eta kontesturik gabe ez  
dago gertatzen ari dena behar bezala  
ulertzerik. Hauxe da, hain zuzen, ni  
neu frogatzen estandarizatu horien aurka  
egotearen arrazoia.

### **Zein tresna erabili beharko genituzke horretarako?**

Era honetako ebaluazioa egin nahi  
izanez gero, metodo egokiak aplikatu  
behar dira; dibertsitate handiko neur-  
gailuak, elkarrizketak, behaketa... eta  
hau dena sakon kontrastatuz, fidaga-  
rritasuna izatea nahi bada. Esan behar-  
rik ez dago sentsibilitate berezia  
behar dela geletako konplexutasuna  
jasotzeko. Hezitzaileak honetan hezi  
beharko gure begien aurrean  
gertatzen dena zuzen jaso ahal izate-  
ko. Ikustea ez da nahikoa, ikusitakoa  
interpretatu egin behar da eta inter-

MIGUEL ANGEL  
SANTOS



**“Benetako irakaslea bere ikasleak intelektualak balira bezala tratatu eta intelektualak izateko bultzatzen dituena da”**

pretatzeko garaian hirugarren pertsonen iritziak eskatu behar dira lehenengoak kontrastatzeko, norberaren aurreiritziek egia desitxura ez dezaten.

Hezkuntza afektibo-sexuala ebaluatzerakoan galdera asko egiten zaie haurrei eta familiei, taldeka eta bana-ka, eta eginkizun honetan hezitzailearen “entzuteko jarrera” erabakiorra da. Ikastaro batean entzun nion Carl Rogersi “Entzungo dizun norbait baduzu, salbatuta zaude” esaten. Eta gu hurrekin gabiltzanez, ezin diegu entzun haiei begira egon gabe, ezinezkoa da entzutea adi egon gabe, are gehiago haurren komunikazioaren %90 keinuz eta zeinuz adierazten dutela jakinik. Guk, helduok, ditugun aurreiritziekin (erdiak estalkiak eta beste erdiak malkoak) erne ibili behar dugu haurrek diotena ez distorsionatzeko.

Bilketaren ondoren informazio pilo galanta izango dugu, zatikakoa alabaina, konexiogabea eta asko eta asko kontrajarria. Datuak, beraz, tratatu, prozesatu egin behar dira. Eta hemen, kontuz. Edozein datu “torturatuz” gero, “torturatzaileak” nahi duena aitortzen bukatzen dute eta. Horregatik derrigorrezkoa da triangulaketa

prozesu bat, berriz ere kontuan izanda triangulaketa ez dela kontrajarriak diren datuak ezabatzeko, haien azalpena aztertu ahal izateko baizik. Honen guztiaren ondoren informearen idazpena letorke, labur, argi eta egiazkoa berau, protagonisten hizkera erabiliz beraien ezaguera lapur ez diezaiegun. Ondoren negoziatu egin beharko litzateke, eta azkenik, meta-ebaluazioa (ebaluazioen ebaluazioa) burutu.

Azken honetaz, meta-ebaluazioaz, ez da asko idazten. Nik bost bat galderatan planteatuko nuke hori: Seriotasunez burutu al dugu ebaluazioa? Hobetzeko helburuz al dago egina? Eraman prozesuak ikasteko balio izan al digu? Etikoa izan al da prozesu hori? Beste kontestu batzuetan aplikatzeko modukoa al da?


Honek lan sakona eskatzen du, baina hau guztia aurrera eramanez behar da eta baldintzak jarri behar dira berrikuntzak egin ahal izateko, bi zeinu negatiboekin positiboa egiteko, alegia, bai profesionalki eta baita pertsonalki ere. Geletan egiten den lana hobetu egin behar da bai ikasleengatik, bai irakasleengatik eta baita gure lanbideengatik ere, estimularria izan dadin berau eta ez frustrazio-bidea.





euskal  
heziketarako  
aldizkaria

34



## Euskal Eskola

Akordio berri bat hirugarren  
milurtekoaren atarian

EIEF-FERE

(Euskadiko Irakaskuntzarako Erlijiosoen Federazioa)

# Euskal Eskola

## Akordio berri bat hirugarren milurtekoaren atarian



**1** 1993. urtean “Eskola Itunerako Akordio Politikoa” sinatu zen EAEn. Hezkuntza arloko hainbat gai zituen oinarrian akordio honek. Orain, akordioaren indarraldia amaitzear dagoenean, EIEF-FEREK (Euskadiko Irakaskuntzarako Erilijosoen Federazioak) hausnarketa egin du gaiaren inguruan. Edorta Alonso, Feliz Ezama, Luis Gutierrez eta Guzmán Martínek osatutako batzordea aritu da lan horretan. Alde batetik, horrelako hitzarmen bat zergatik nahi duten aztertu dute, eta bestetik, hitzarmen horren zutabeak zein izan behar duten.

Eskola Ituna garrantzi bereziko tresna da, kontu handiz zaindu beharreko eskolako heziketaren esparruan egonkortasuna, bakea eta gizartearen bateratzea lortzeko. Hainbat estatu eta naziotako gobernu ugari beren etorkizunerako estrategien plataforma garrantzitsu gisa baloratzen dute.

Euskadiri dagokionez, “Eskola Itunerako Akordio Politikoa” sinatzen Estatuko lehenengoa izan zelarik, 1993an, eta haren indarraldia amaitzear dagoenean, gure ustez une estrategiko aparta dugu euskal gizartea berriro ere tresna horrekin hornitzeko. Ez besterik gabe orain arteko esperientzian oinarriturik, baizik eta Jaurlaritza berri bat eraiki beharreko egoera ere baliatuz, kontuan izanik etorkizunean hura osatuko duten kideen artean hezkuntza arloko hainbat akordio sinatu beharko dutela.

Gizarteak ez luke hezkuntzaren gaia, besterik gabe, Hezkuntza Sailaren ardura daraman unean uneko Gobernu edo alderdiaren esku utzi

behar. Gizarte batentzat guztiz funtsezkoa eta oinarritzkoa den gairik baldin badago, ezin uka gai hori hezkuntza dela. Horregatik, bai gurasoek eta bai heziketaz arduratzen diren hainbat erakundek, beren gai kuttuna bailitzan zaindu beharko lukete, beren seme-alaben heziketa alderdi politikoaren esku uztearen tentaldian erori gabe.

Denon gogo horren emaitza gisa Hezkuntza arloko Euskal Eskola Akordio batera iristen bagara, gizarteko bakeak kalitatezko urrats bat emango du aurrera, eta erreferentzia esparru garrantzitsua izango dugu, euskal biztanle guztiok geure burua kokatzeko eta kanpotik koka gaitzaten, harrotasun zintzoenarekin.

Ez dezagun ahaztu gure Herriak azken urteotan izan duen beherakada demografikoa. Une honetan oso bereziki somatzen da Irakaskuntza Ertainetan eta epe labur batean Unibertitatean izango du eragina. Gertakari honek, arrazoi nabarmenengatik, bezeroak eskuratzeko borroka zorrotzean sartzera daramatza ikastetxe ezberdinak. Egoera guztiz kontuzkoa eta arriskutsua da, eta berdintasunean eta benetakotasunean oinarritzen diren akordioak behar dira, eskola arteko guda giroa saihestu eta eragozteko. Hezkuntzaren kalitaterako ezinbesteko baldintza da. Giro hori Eskola Itun baten bidez ziurta daiteke eta hala behar du. Etorkizuna aurreikusi behar duen Eskola Ituna, haren arazo eta irtenbideak kontuan hartuz eta hiritar guztiei justizia eginez, unean uneko agintarien aldeotasun eta aurkakotasunen menpe edo gizarte talde oldarkorrenen presio estrategien menpera utzi gabe.



## Eskola itunerako aurreko akordiotik begira

**a.**-Aurreko Eskola Itunerako Akordio Politikoaren garrantzitsua gertatu zen sistemaren egonkortasunean eta irakaskuntzako bi sareen orekan, Haur Hezkuntzarako eta DBHrako Itunen bidez. Bi hezkuntza sare egotea normalizatu zen; gizarte ekimenezko sareko irakasleen euskalduntzeak eta irakaskuntzako langileen soldata homologazioak aurrera egin zuen. Ordezko Ordainketarako sistema bat hitzartu zen Estatuko baina askoz zentzuzkoagoa. LOGSEren Erreformak eskatutako egokipenentarako laguntzak eratu ziren. Gela murrizketaren eraginpean eroritako Ikastetxentarako Akordioaren bidez, leundu egin zen enplegu galeren eta kalteordainen eragin bortitza. Zentzu honetan Eskola Itunari esker azken bost urteotan garbi genekien zein erreferentzi esparrutan mugitzen ginen, eta asko lagundu die ikastetxetako arduradunei Administrazioarekiko harremanetan.

**b.**-Aurreko Itunean kontuan izan ziren eta etorkizuneko legerian jaso beharko lirakekeen hainbat alderdi garrantzitsu lotu gabe daude oraindik, esaterako DBHren finantzaketa (Lanbide Heziketa, Batxilergoak, Gizarte Bermea...), Irakaskuntzako eta ez-Irakaskuntzako Langileen behinbetiko homologazioa eta Erreformak eskatzen dituen egokipenen kofinantzaketa. Baina Euskal Eskola Akordio berriak bere garaiari aipatuko ditugun garrantzi bereziko beste gai batzuk ere barnebildu beharko lituzke.

**c.**-Bestalde, aurreko Itunaren indarraldian, egoera berri batzuk tirabira sortu zuten Euskadiko hezkuntza arloan, eta egoera horiek erantzun egoki eta bizkor bat behar dute, etengabeko desadostasunerako eta nahigaberako gai bihur ez daitezten. Zehazki, ondorengo alderdiez ari gara:

-Haur Hezkuntzaren Lehen Zikloaren egoera. Hasia da dagoeneko 2 urtekoen gelen ezarpena nahiko nahierara,

bai egitura aldetik eta bai ekonomia aldetik. Eta alderdi horrek oso funtsezko eragina du zenbait ingurutako etorkizunerako eskola plangintzan.

-Batxilergoaren ezarpena, egoera eta eskubide beretsuko ikasleentzako laguntza publiko oso ezberdin eta diskriminatzaileekin.

-Bi hezkuntza sareetan oraindik jarraitzen duten edo areagotu egin diren tratua ezberdintasun handiak, hainbat gai garrantzitsutan. Esaterako, maila bakoitzeko irakasle/gela ratioa; hezkuntza bereziaren premietarako diru eta pertsonal arloko laguntzak; Lanbide Heziketako inbertsioentarako dirulaguntzak; irakasleriaren prestakuntzarako sistema; irakasleak euskalduntzeko xedez jarritako diru kopuruak; matrikulazio aurreko garaietan Kontseilaritzak eskola publikoen alde egindako propaganda gastuak... Sarritan aztertu izan ditugun zenbakieta garbi ageri da kontusail bakoitzeko aurrekontuen eta sektore bakoitzak Euskadiko hezkuntza sisteman duen ordezkaritza mailaren arteko desegokitasun izugarria. Hizkera arruntean esan ohi dugunez: "Aurrez gaizki banatua dator opila".

Hezkuntza sistemaren alderdi horiek eta beste batzuk berdintasunez eta benetakotasunez hitzartu behar dira, zerga sistemak denon heziketari erantzuteko Euskadiko hiritarrongandik

baliabideak inguratzeko erabiltzen duen berdintasun eta benetakotasun berberekin.

## Euskal Eskolaren Akordio berri bat (Akordioaren zergatiak eta indar-lerroak)

### Mendearen aldaketa

XX. mendearen amaiera honetan, asaldura latzak gertatu dira -hezkuntza sistemari erakunde moderno gisa harturik- eragin eta eutsi dioten hitzarmenetan; hezkuntzaren mundua aldatzen ari da eta aldaketa eske dugu gainera, eta horretarako, helburu berriak txertatu behar ditugu hezkuntzan, paradigma berriak imajinatu eta hezkuntza-jarduera hobekuntza sustatu.

Egungo kulturak erronka berriak ekarri ditu, eta beraz, egungo hezitzaileak gai izan behar du erantzun askotarikoak eta aurkajarriak emateko. Aurkakoak diruditen zenbait alderdi bateratzeko gauza izan beharko du. Hezitzaile zurrun irmoaren irudi hartatik alde egin behar dugu. Jokabide ireki eta elkarrizketatzailea duten hezitzaileak eskatzen ditu mende berriak, sinesmen sakona dutenak, munduaren ikuskera eta herri-sustraiak dituztenak, hausnarketarako eta bereizketarako ahalmena dutenak, irakasten ari direna irudikatzen dutenak. Hitz bitan: bitartekari eta laguntzaileak, irakasle hutsak baino areago.



## **Eskola Akordio berri baten zer-gatiak**

Elkarrizketarako, adostasunerako eta errespeturako eredu bat eskaini behar dugun alorrik bada, hori hezkuntzarena da, ekintza hezitzaile bat izate hutsagatik. Bi hezkuntza sareen eta hezkuntza zentroyen aniztasun horren erdian, euskal eskolen hezkuntza sistema anitz, koordinatu eta aberats bat bideragarri egingo duen euskarria eskaini beharra dago.

Bestalde, Eskola Akordio horrek erreferentzia bat bilakatu behar du, hezkuntza erakunde desberdinek horren barruan duten onena txertatzen joan daitezen, bai baitakigu errealagoa dela -nahiz konplexua eta era askotakoa izan- gure euskal gizarte honen eskakizunak denon artean asetzea, lehendik ere oso anitza baita gure gizarte hori (azken hauteskunde-deialdiko emaitza ikusi besterik ez dugu).

Benetan garrantzitsua den oro bezalaxe, hezkuntza ekintzak giro lasaitu bat behar du, bai "ad intra" eskola ingurunean, eta baita "ad extra" ere, gaur egun hezkuntza zentro batek beste hainbat errealitate eta gizarte erakunderekin ezartzen dituen harreman ugarietan.

Azkeneko hezkuntza aldaketa handiak, hezitzaile askoren ahaleginaren, hezkuntza sistemak berak duen inertzian eta Europa aldetik eta hezkuntza korrante ugarietatik gizakiak, eskolak, erakundeak eta hezkuntza administrazioak suspertu dituen haize freskoaren emaitza izan dira. Alde horretatik, hezkuntzaren alorrean ere bilakaera sakona ezagutu duen euskal gizarte baten aurrean aurkitzen gara: eskola sare batek bestea (publikoa, pribatua) irentsiko ote zuen beldurrak uxatu egin dira, kalitatea ate joka datorkigu ikastetxeetako ateondoetara liskar antzuen gainetik, eskolako plangintzaren ildo nagusiak zehazturik daude, ikastetxeetako barne-antolamendua konplexuagoa, aberatsagoa eta "sortzaileagoa" bilakatu da hezkuntza eskakizun ugarietara erantzun

zehatz bat emateko ahalegin horretan: aniztasuna zaintzea, hezkuntzaren muina berreskuratzeko asmoz pertsonalari etengabeko heziketa eskaintzea (eszedentziak barne), euskalduntzea, zuzendaritza talde dinamikoak antolatzea, hezkuntzaren berrikuntzak, "bizi-esparru orokorrak" eskatzen dituen hizkuntz-aniztasunaren erronkari erantzutea...

Era berean, jabetzen gara gizarte demokratiko heldu bat bideratzeko atarian gaudela, eta gizarte horretan jada ez dutela zentzurik Administrazioaren eskuhartze-nahiek edo gehiegizko ardurek. Gizarte horretan, oinarriko askatasunetik begirunea existentziarako oinarriko baldintza da. Urrats zehatzak eta eraginkorrak egin beharko ditugu ikastetxe, erakunde eta hezkuntza sareen geroz eta autonomia zabalago horren alde; ikastetxeetako titularren eginkizuna bultzatuz, hezkuntza zentro bakoitza hezkuntza-ekintzaren topaketarako eta hausnarketarako bilgune bihurtuz, hezkuntza berrikuntzen eremu zabala arreta handiz landuz eta koordinatuz...

Eta azkenik, Europako errealitatearen erronkak, eskolaren alorrean batez ere, irudimena eskatzen du. Hots, gai izan behar dugu gure seme-alabek beren bizitza errepikaezinetan mundu orokor horretan duten onena emateko prestatzeak dakartzen arriskuak geure gain hartzeko. Eta horrexegatik, Europa ezin daiteke arrotz izan Hezkuntza Administrazioarentzat, ez kultur-hezkuntzaren ikuspegitik soilik, baita laguntza ekonomiko eta pertsonalen alorrean ere. Hain zuzen ere, geure aurrean dugun erronka hori aurreikuspen eta ausardia ezagatik etsipen sortzaile bilaka ez dadin.

## **Euskal Eskolaren Akordio berri baterako indar-lerroak**

Eskola Akordio bideragarri baten xehetasun guztiak jorrazteko asmorik gabe, mende aldaketa honen atarian funtsezkoak iruditzen zaizkigun zutabe edo indar-lerro batzuk aztertuko ditugu:

"Gizarteak ez luke hezkuntzaren gaia, besterik gabe, Hezkuntza Sailaren ardura daraman unean uneko Gobernu edo alderdiaren esku utzi behar. Gizarte batentzat guztiz funtsezkoa eta oinarrikoa den gairik baldin badago, ezin uka gai hori hezkuntza dela"

## 1.- Oinarrizko askatasunei eutsi eta horiek hobetzea:

Euskal Herria, Estatuan daudenen artetik inor gutxi bezala, herri dinamikoa, saiatua eta arazoei aurre egiteko eta bidezko irtenbideak bilatzeko ahalmen handikoa izan da, eta da orain ere. Dinamismo hori bera behar genuke hezkuntzaren sektorean, ikasgela edo ikastetxe jakin baten barrun ez ezik, baita eskola plangintzaren eta horren ondorengo berrikuspenaren mundu konplexuan ere. Gizartearen eskaerek eta gizarteak berak dituen eskakizun horietara etengabe egokitu beharrak, hezkuntza sektorearen iparrorratza izan beharko lukete. Hezkuntzaren sektorean erregulazio bat egin beharra baldin badago, kontuan izan gizarteak zer eskatzen duen. Ildo horretatik, Administrazioak gizarte eskaerak administratu beharko lituzke, baina ez zalantzarik inpartzialtasuna duten propaganden bidez edo sare bat bestearen gainetik sustatzea xede duten banaketa ekonomikoen arabera bideratuz. Presio taldeek, abiltzariak, ez dute hezkuntza alorraren zuzentzaileak izan behar, euskal gizartearen bakean eraiki nahi baldin bada bederen. Egun, zenbait ikastetxe gehiago haz ez daitezten (eta horrekin batera, beste batzuk desagertu edo beren ikasgelak gutxitu ditzaten) halako mugapen bat dago, baina mugapen horrek bide eman behar dio ikastetxeak berak duen dinamikarekiko errespetuari. Eta ildo horretatik, Eskolaren Akordioak bermatu egin behar ditu kreatibitate desberdinak, solidarioki ezarria dagoen joko-eremu horren barruan.

## 2.- Ikaslearen baitan dagoen pertsona horrek hezkuntza arloaren muin izan behar du:

Ikasleari, dagoen lekuan dagoela ere, hezkuntza baten aukera eskaini behar zaio. Ikaslearen lan-ohiturak sustatu behar ditugu, sormena bultzatu, eleantzak izan daitezten eta etorkizunari ausardiaz aurre egiteko gai senti daitezten eta abar. Aurreko horrek guztiak badu zerikusirik gurasoek libreki



aukeratzen duten ikastetxearekin. Zentzu horretan, ez du jarrera diskriminatzailearik egon behar hezkuntza sarean artean edo sare bereko ikastetxeen artean, hezkuntza proiektu berezien bidez beren barne-dinamikan halakorik berez gertatu ezean.

## 3.- Ikastetxeen autonomia:

Euskal Herrian sentimendu sakonik baldin bada, hori autonomiarena da. Bai bere hizkuntzagatik, bai bere historia propioagatik, beste herri batzuen erdian jartzen saiatu da, bere nortasun propioa gordez. Autonomia horrek, halaber, ikastetxe baten funtzionamenduaren zutabeetako bat izan behar du. Jakina, oinarrizko arauak, printzipio nagusiek eta hezkuntza alderdi orokorrek ikasle guzti-guztien ondare izan behar dute. Ikastetxeen autonomia bermatu edo bultzatzeak, ikastetxe horiek dituzten giza baliabideen aberastasun berritzaile guztia martxan jartzea esan nahi du. Halaber, hezkuntza proiektua, kudeaketa pedagogikoa eta ekonomikoa, hezkuntzaren tratamendu anitza (kaltetuenerkiko diskriminazio positiboa eginez)... ikastetxe bateko giza baliabideen aberastasun guztia modu eraginkor eta bideragarri batez martxan jartzen duten beste eragingailu batzuk dira.

## 4.- Ikastetxeetako hezkuntza kalitatea:

Demokrazia heldu baten barruan, hezkuntzan egiten diren ahalegin handiek, ikastetxeen biziraupenaren alde-

ko borrokatik eta Administrazioak biziraupen hori babestu edo ez babesteko eskuhartze-nahietatik kalitatea lantzerantz igaro behar dute, hezkuntza sektorean oinarrizko kalitatezko printzipio batzuk zentzuz aplikatuz. Etorkizuneko ahalegin handia giza baliabideen birkoalifikazioari begira egin behar da. Ildo horretatik, inbertsiorik onena ikastetxeetako pertsonalean egin dena izango da. Teknologia berriak, aniztasunarekiko arreta, kalitate sistemak, European zentzuz sartzea, euskalduntzea, baloreak lantzea, orientabideak eta tutoretza, jarduera osagarriak... ikastetxeetako hezkuntza kalitatearen beste puntu garrantzitsu batzuk dira. Kontua ez da ikastetxeak kompetentzia zintzo baten barruan bizirautea, baizik ikastetxe horiek kalitatezkoak izatea.

## 5.- Hezkuntza Ekipoak:

Zentroen antolamendu askatasunaren barruan, hezkuntza ekipoen egituraketa dugu hori lortzeko oinarrizko zutabea. Irakasle/ikasgela ratio kontzeptua zaharkitua geratu da. Ikastetxeetako hezkuntza proiektua bideragarri egin dezaketenean giza taldeak finkatu behar dira. Hezkuntza Administrazioak eskola-itun eta plangintzen bidez bultzatu duen mugapenak ez garamatza etorkizun itxaropentsu batera. Hezkuntza Zentro bakoitzak, bere barne-antolamenduan oinarriturik administratu eta banatu behar ditu bere giza baliabideak, dauzkan eskolapremien, hezkuntzazkoen, bileren, aniztasunarekiko arretaren, ikasgela



bikoizketen, zuzendaritza taldeen, orientabideen, tutoretzen... arabera. Elementu horiek ikastetxe guztietan amankomunak izan arren, horiei ematen zaien garrantzia ez da berdina denean. Horrexegatik, ikastetxeetako autonomia, askatasun eta kalitate osasuntsuaren ernamun izan daitezke Hezkuntza Ekipo malgu batzuk.

Bestalde, ikastetxeetan Hezkuntza Ekipoak berritzeak zenbait gauza eskatzen ditu: gazteen sektoreak dituen lan-eskakizunei erantzun egoki bat ematea, berehalako tratamendu bat eta jubilazio aurreratuekin adostua, etengabeko heziketarako eszedentziak behar bezala finkatzea, hezkuntzaren alorrean denbora asko daraman pertsonalarentzako titulazioen eskakizunak malgutzua eta abar.

#### 6.- Aniztasunarekiko arreta:

Puri-purian dagoen gai bat da, baina aniztasunaren errealitate horri behar bezala aurre egin ezina tentsioak sortzen ari da klaustroetan. Borondate ona, baliabideen urritasuna, ikasle kaltetuenak gizarteratzeko egiten den propaganda, derrigorrezko irakaspenak zabaltea, gizarteratzeko zentro bereziak ezabatzea eta abar, sufrimendu gehiegi sortzen ari da klaustroetan, eta eskolako ezegonkortasunaren lehen zantzuak agertzen hasi dira. Ikastetxeetan giza baliabideak zabaltea, alor honetan dagoen heziketaren aukera zabala, egungo aukeragarritasun eta hautagarritasunak konplexurik gabe gainditzea, eta beren egituraketa berria, giza baliabideak eta teknikoak (zenbaitetan oso garestiak) partekatzeko ikastetxeen arteko lankidetzeta eta abar, oso errentagarriak izan daitezke, kontuan badugu herritarren segurtasunean eta delikuentziaren ezabaketan nolako dirutzak gatzatzen diren. "Behar handiena duten" ikasleen sektore honi arreta berezia eta positiboki diskriminatua eskaintzea hezkuntza kalitatearen zutabeetako bat da, ikasle bakoitzari erantzun egokia emanez, dagoen tokian dagoela ere.

#### 7.- Euskalduntzea:

Euskal hezkuntzaren sektorea hizkuntzaren alorrean ere kalitatezkoa izan dadila nahi baldin badugu, euskal ikasleak eta, ondorioz, irakasleak eta ikaste-

txeetako pertsonala ere euskalduntzeko zuzeneko nahiz zeharkako egiturak bul-tzatu beharko dira.

Alor honetan dauden premien kopuruak larriak izatera iritsi dira, bai sare pribatuan horien prozesua geroago hasi zelako, eta bai arlo honetako dirulaguntzak jasotzeko orduan sektore pribatuak publikoaren aldean izan duen diskriminazio handiagatik ere. Pertsonal asko dago oraindik euskalduntzeko, eta zeharkako eta berehalako lerroak ezarri behar dira euskalduntze horri begira, IRALEz kanpo: jubilazio aurreratua, Hezkuntza Ekipoen kopuru eta kalitatean pixkanakako igoera...

Ikaslea dagoen tokian euskalduntzea izango litzateke helburua, bere ikasketak burutzen dituen ikastetxe hori ikaslea diskriminatzeko arrazoi izan gabe. Euskadi, gutxienez, erkidego elebiduna (euskara eta gaztelania) izan dadila nahi

"Gizartearen eskaerek eta gizarteak berak dituen eskakizun horietara etengabe egokitu beharrak, hezkuntza sektorearen iparrorratza izan beharko lukete"

dugu. Administrazioak sentibera izan behar du arazo horren aurrean, zeren etorkizun hurbilean larria bihur baitaiteke erabaki egokiak hartzen ez badira. Horregatik, ikastetxeetako titularren, sindikatuen eta Administrazioaren beraren artean "euskalduntzeko akordio orokor" baten aldeko apustua egiten dugu.

#### 8.- Lanbide Heziketa:

Erabiliegia dagoen gai bat da eta politikari, administrazio eta hezkuntza sektore guztien ahotan dabilena, baina oraindik ez du lortu gizarte sektorean txertatzea, batez ere gurasoen eta ikasleen mentalitatean. Europa aldeko beste herrialde batzuekin konparatuz gero, oraindik gauza askotan egin behar dugula aurrera ikus dezakegu, eta batez ere, sektore hori birbalioetsi eta susper-tzearen alorrean. Birbalioespen horretarako beharrezkoak izango dira enpresa-ehunak Lanbide Heziketaz duen beharrari buruzko informazio zintzoa ematea, bere garrantziarekin bat datozen hezkuntza politikak ezartzea, finantzaketa egoki bat finkatzea sareak izan dezakeenaz aparte, ikastetxe-enpresa arteko harremanak indartzea, enpresetako praktikaldiak duintzea, enpresa eta ikastetxeetan tutore ego-kiak prestatzea...

#### Ondorio gisa

Euskal Eskolaren Bigarren Akordioa prestatzerakoan gorago aipatu ditugun puntu garrantzitsuenak kontuan hartzen baldin badira, eskola mailako bakearen oinarriak finkatzen hasiko gara. Eta horrek, epe ertain eta luzera, eragin handia du gizarte mailako bakean eta gizarte benetan demokratiko baten finkapenean, non hezkuntza politikak denen artean adostuak egongo diren, eta ez presio-taldeen edota dagokion administrazioaren menpe, baizik eta gizarte sektore desberdinen arteko topaketen emaitza izango dira, hezkuntzaren alorra etorkizuneko gizarte horren begin-ina balitz bezala hartuz.

Eta hori horrela baldin bada, atseginez baieztatu ahal izango dugu milurteko berriaren atarian izar berri bat piztuko dela gure zeru urdinean.



## Errioxako mugaraino Sartaguda eta Lodosako ikastolak

**M**endi aldapatsuak utzi eta landa lehor eta zabaletara hurbiltzeko gonbitea luzatu nahi dizuegu. Garia ez ezik, euskara ere ereiten ari da, eta uzta jasotzen ari dira bai irakasleak, bai gurasoak eta baita ikasleak ere.

Ez da erraz jasotzen den uzta, baina landu eta zainduz gero, emaitzak ikusten dira. Horren lekuko ditugu Sartaguda eta Lodosa ikastolako zuzendari eta sortzaileak: Mari Paz Iturbe eta Ana Sanchez, hurrenez hurren. Bi ikastoletako atea zabaldu dizkigute eta barrura sartu gara.

Lehenengo, Mari Paz Iturberen laguntzaz Sartagudako ikastola ezagutu dugu. 1.400 biztanle inguru dituen herri honetan 1986. urteko udazkenean sortu zen ikastola bost haurrekin eta bi gela txiki-txikirekin. Orduz geroztik gorabehera handiak jasan dituzte, bai matrikulazio aldetik eta baita leku aldetik ere. Iturbek ederki gogoratzen du hasierako "ikastola" nolakoa zen: "gela nahiko handia zen, behean patio txiki bat genuen, zatarra eta zaharra, eta komunak ere zaharrak ziren. Lokala udalarena zen eta ez genuen ez argirik ez urik ordaintzen".

Bigarren ikasturtea hasteko irailean ikastolara itzuli zirenean, ordea, ezusteko batekin egin zuten topo. "Astelehen batean joan ginen eta ikasgelaren erdian horma bat aurkitu genuen. Gure material guztia hankaz gora eta sakabanatuta zegoen. Gauzak horrela, gurasoek udale-

txera jo zuten. Pleno batean aztertu zen egoera eta ondorioz kultur etxeko gela bat lortu genuen. Estreinatuta gabe zegoen eta oso egoera onean". Egoitza berri honetara pasa ondoren, matrikulazioak "boom" handia izan zuen, bost haur izatetik 14 izatera pasa baitziren. "Bi urteko bederatzi haur berri horien gurasoek ikastola zer zen eta zer ez zen ikusi zuten. Hurrengo urtean, hiru urterekin, horietatik zazpi ikastolan gelditu ziren eta bik alde egin zuten eskola publikora".

Baina tamalez gorakada horrek ez zituen denak pozik utzi. Ikuskatzailea larritu egin zen eta ikastolara bisita egin zuen. "Hautzaindegi bat zela uste zuela esan zigun eta hura ez zela hautzaindegi bat. Ateak ireki eta dena berri-berria ikusten zuen. Komun berriak genituen, soinketa egiteko gela, aterpe txiki bat behean..."

Baina handik urte eta erdira kultur etxea funtzionamenduan jarri zen eta berriro lokalik gabe gelditu ziren. Orduan, gaur egun dauden etxea lortu zuten.

Dena dela, ekonomikoki hasierako pausoak ez zirela hain txarrak izan aitortu digu Iturbek. Izan ere, Sartagudako ikastola sortzear zegoelarik, Deikazteluko ikastola itxi egin zen. "Han ikastola txiki bat genuen eta urte batean hiru haurrekin gelditu ginen. Orduan ikastola itxi beharra zegoela argi ikusi genuen eta nolabait, han zegoen dirua, materiala eta irakaslea Sartagudara ekarri genituen". Beraz, hasiera ez zen hain zaila izan diru aldetik, baina gerora behar handiak sortu ziren. Nafarroako Euskararen Legea zela eta, dirulaguntzarik gabe gelditu ziren, Sartaguda gune ez-euskalduna baitzen legearen arabera.



Lodosa ikastolako ikasle eta irakasleak



## Sartaguda ikastolako ikasle eta irakasleak

“Urte larriak pasa genituen. Nik urte osoa soldatarik ikusi gabe pasa nuen, esaterako. Baina gurasoak irmo zeuden eta hor jarraitu genuen. Irakasle batekin hasitako ikastolan gaur egun lau irakasle gaude”.

Mugimendu hauekin guztiakin batera, matrikulazio kopuruak ere mugitu dira, bai gora eta bai behera. Iturbek esaten digunaren arabera, matrikulazioaren %20a, %40a, %60a eta %100a izan dituzte. Iazko ikasturtean izan zuten baxuena. Zergatik? Beste eskolako konpetentziagatik. “Guri alegalak garela esaten digute, baina beraiek ilegalak dira. Bi urteko haurrak eta beste irakasle bat sartu dituzte eskolan. Doan da eta udalaren babesa ere badute. Eta horrek, nahitaez, ipurdiko handia eman digu” dio Iturbek.

Era berean, ikastola sortu eta hiru urtera eskola publikoan A eredia jarri zuten, eta horrek ere eragina du, noski. Iturbek dioenez, Nafarroako Erriberan A eredia eskaintzen hasi zen lehenengo-etariko eskola izan zen. Gaur egun A eta G ereduak eskaintzen jarraitzen du. “Ikastola sortzen den tokian Administrazioak berehala jartzen du A eredia”.

Baina ikastolak A eredia baino gehiago eskaintzen du. Euskara ez da ikasgai soil bat, hori badakite gurasoek eta aintzat hartzen dute. “Askok euskara ikasten dutelako ekartzen dituzte haurrak ikastolara, baina hala ere ez da arrazoi bakarra. Ingelesa ikasten 4 urterekin hastea ere beste arrazoi bat da, eta haurrak oso ondo daudela ikustea ere beste bat. Haur txikiei eskaintzen zaien harreman afektiboa asko baloratzen da. Haur

bakoitzarekin harreman hertsia daukagu eta gurasoekin ere bai. Bai kurtso hasieran eta bai kurtsoan zehar ere beraiekin irteerak antolatzen ditugu. Lehenengo urtean Olentzero atera genuen eta Santa Ageda bezperan eta Inauterietan ere atera ginen. Harrezkero urtero ateratzen gara”.

### Lodosako ikastola

Lodosa Sartaguda baino herri handixeagoa da, 4.000-5.000 biztanle ingurukoa. Ikastola 1991. urtean sortu zen bederatzi haurrekin. Zazpi urteko bizi-raupena duen ikastolaren ezaugarrietako bat etengabeko lekualdaketarena izan da. Zazpi urtetan bost lekualdatze egin dituztela komentatu digu Ana Sanchez ikastolako zuzendariak. “Hasieran etxe partikular bateko gela txiki batean egon nintzen ni bakarrik haurrekin. Bi urte egon ginen bertan. Familia bat bizi zen etxean eta gela bat utzi zigun guri”. Handik enparantzako beste etxe batera pasa ziren leku gehiago behar zutelako. Izan ere, matrikula poliki baina igoz zihuan eta irakasle gehiago etorri ziren. Leku hau ere txikiegi gelditu zitzairen eta toki handiago batera pasa ziren. Bi urte egon ziren bertan eta 1996an beste batera pasa ziren matrikulazioak gora jarraitzen zuelako. “Leku honetan arazok izan genituen. Bizilagun batek gure aurkako salaketa jarri zuen udaletxean eta ezin izan genuen bukatu bertan ikasturtea. Gauzak horrela, gurasoek beste etxe bat lortu zuten, gaur egun daukagun hau, hain zuzen ere. Beraz, bi urte daramatzagu hemen eta nahiko finkatuta gaude. Beste gela bat egokitu behar dugula pentsatzen ari gara, haur asko

hasi baita hartzaindegira etortzen. Momentu honetan lau irakasle gaude”. Horrelako herri batean, giro erdalduna nagusi den lekuan eta gehiengoak gaizki ikusten duen tokian lan egitea zaila dela aitortzen du Sanchezek, baina horrek ez dizkie lanerako gogo eta animoak epeltzen. “Egia esan, lan zaila da, baina polita”.

Bi urteko haurrekin hasten dira ikastolan eta zaharrenek aurten Lehen Hezkuntzako 5. maila egingo dute. Hurrengo ikasturtean, berriz, 6. mailara iritsiko dira, eta ondoren Lizarrako ikastolara joateko aukera izango dute euskaraz ikasten jarraitu nahi badute. Beraz, oraindik ez da ikasle promoziorik irten Lodosako ikastolatik.

Bai, ordea, Sartagudatik. Hiru promozio atera dira bertatik. Badira Lizarrako ikastolara joaten diren bi mutiko. Egunero 35 km. egiten dituzte euskaraz ikasten jarraitu nahi dutelako. Beste batzuek, berriz, Lodosako eskola publikora joatea aukeratzen dute. Hauek 5 km. egiten dituzte egunero eta gaztelaniazko eremuan jarraitzen dituzte ikasketak.

Lodosako ikastolatik ateratzen direnek ere aukera bi horiek izango dituzte: Lizarrako ikastolara joan edo herriko eskola publikora.

### Lizarrako ikastolarekiko harremana

Sartaguda eta Lodosako ikastolek Lizarrako ikastolarekin harreman estua daukate. Iturbe eta Sanchezek azaldu digutenaren arabera, euren haurrak Lizarrako ikastolan matrikulatzen dira legalki Lehen Hezkuntza hasi bezain laster. Horrez gain, irakasle zein ikasleek hainbat ekintza egiten dituzte elkarrekin. “Udalekuak beraiekin batera egiten ditugu eta irakasleok ere zerbait behar badugu, Lizarrara jotzen dugu”.

Harreman honek aurrerantzean ere jarraituko du eta Sartaguda eta Lodosako ikastolen artekoak are gehiago. Izan ere, aurrera begira, Lodosan lurrak erosi eta bientzat ikastetxe bat egiteko asmatan dira. Proiektu horri bultzada eman ahal izateko Nafarroa Oinez bat egitea ere lortu nahi dute. Guraso eta irakasle en lanak lehen emaitzak eman ditu, ikusten da, eta hemendik aurrerako uztak oparagoak izango dira, ziur.

## Nola bizi duten plastika Beasaingo SEASKA Haur Eskolan

### Esperientzia honen justifikazioa

Hezkuntza ekintza bihurtzeko orduan hainbat arlo esperimendatzen ditugu gure eskolan. Hauetatik estetikaren heziketa da bereziki garatu izan duguna ondorengo mailetan:

- Eskolarena, esparru estetiko bezala harturik.
- Hezitzaileena, zenbait une berezitan gauzatzen ditugun lanak direlarik.
- Haurrena, beraien esperientzia artistikoak direla eta.

### Eskola, esparru estetikoak

Oinarri-oinarrizkoa da berau, eskola espazio eta txoko atsegin, alai, polit eta esanguratsuz osatuta egotea nahi baldin badugu. Hau kontuan hartuta xehetasun guztiak garrantzi handikoak bilakatzeko dira. Argiak, apaingarriak, mugikariak, gortinak, hormen koloreak, edredoiak, altzariak...hots, den-dena, eskola ingurune eder eta harmoniatsua izan dadin.

### Hezitzaileen lanena

Guk geuk ere landu eta garatzen ditugu gure abildade artistiko eta estetikokoak eskola dekoratzeko mugikariak, hormirudiak eta abar sortzen ditugunean, baita haurren lanak gurasoei erakusteko egiten ditugun karpetak osatzekoan ere, Gabonetan edota ziklo amaierako jardueretan.

Hau da beharbada, kanpotik begi-

raturik, gure ekintzarik ikusgarriena eta denboran luzeen irauten duena.

### Haurren esperientzia artistikoak

Haurrek egunero burutzen ditugun ekintzak beraien esperimendazio eta manipulaziorako trebetasuna garatzeko entrenamendutzat hartzen ditugu. Entrenamendu hau esanahitsua, sentzoriala, motorea, komunikaziozkoa eta adierazgarria izatea nahi dugu.

Gure lanean arlo asko ukitzen ditugu ahalik eta ekintza eredu globalena gerta dadin.

### Helburu orokorrak

Plastikaren inguruko ekintza hauekiko jarrera baikor eta partehartzailea

bultzatu eta ekintza hori gustukoa bilakatzeko haurrek goza dezaten nahi da.

Honekin batera beste xede hauek ere zaintzen ditugu gure ekintzetan:

- Garapen sentzoriala (ukimenarena, ikusmenarena, entzumenarena..)
- Garapen psikomotorea (eskuen kontrola, koordinazioa, disoziazioa, errota-zioa..)
- Garapen kognitibo-adimenezkoa (kontzeptuak: koloreak, neurriak eta formak, aldaketen pertzepzioa, ehundurak..)
- Garapen sozio-afektiboa. Elkarri lagunduz lan egiten duen talde bateko partaide dela sentitzea nahi dugu; lan bat sortzeko eta burutzeko gai dela sentitzezko moduko giroa sortuz bere auto-







estimua lantzea; bere sortze-lanak bes-teei erakusteko eta emozioak azaltzeko gogoia izatea; autonomiaz jabetzen joa-tea margoak eta materialak bere auke-ran utziz eta bere hiztegia zabalduz beren esperientziak azaltzen treba daite-zen.

#### Bitartekoak

- Eskuak
- Margoak (plastidecor, argizariak, klarionak, pastelak, tenperak...)
- Plastilina
- Buztina
- Bestelakoak (guraizeak, linternak, azukrea, txokolate-hautsa, fruta, hosto-ak, harriak, loreak, zaborretarako mate-riala...)
- Paperak (pinotxo, zelofan, zetazkoa, landare-papera, ebakinak, aldizkariak, orriak, gometxak, kartulinak...)
- Irudiak (Mirórenak, Van Goghenak eta abar...)
- Tresnak: isipuak, neurri ezberdine-tako espumazko arrabolak, sprayak...)

#### Metodologia

Hautatutako egunetan egiten dira plastikako saioak baina ez beti espazio berebean, ez eta euskarri berdinetan. Mahaiak, zorua, plano okerrak nahiz horizontalak tartekatzen ditugu plasti-ka jarduera hauetan.

Materiala beren eskura egoten da eta haur bakoitzaren erritmoa eta nahia kontuan hartzen dugu. Horregatik, materialaren erabilera guztiz librea da, nahiz haurren garai bat egon, 12-14 hilabete betetzean janariekin esperi-mentatzen eta manipulatzeko hasten

direnean, non hezitzailea imitazioarako erreferentzia bihurtzen den eta, hori dela eta, plastika saioa zuzenduxea bihur daitekeen.

Hiru zatitan bana dezakegu saio bate-ko prozesua:

- Materiala eta eszenatokiaren presta-kuntza

- Jarduera (haurrak nahi duen adina luzatuko da)

- Lanen erakusketa. Haur talde batek egindako ahaleginak erakusteko balioko digu erakustaldiak. Beren lanak ikusgai egotea nor bere buruaren eta besteena-ren identifikazio garapenerako ere baliogarria da eta, azkenik, eskolaz kan-poko lotura sortzeko ere, kasu honetan familiarekin, oso tresna deigarria bihur-tzen da.

Plastika saioak erritmo ezberdinetako musikaz girotzen ditugu. Hasieran hau-rrak motibatu nahian erabiltzen dugu musika; gero, jardunean ari diren bitar-tean, erritmoaz jabetzeko eta, lana amaitu ondoren, erlaxatzeko eta lasai-tzeko.

#### Ondorioak

Urteotako lanak erakutsi digu bete-betean asmatu genuela plastika saioak gure programan txertatzearekin. Gure Haur Txikien Eskola gu denok, handi eta txiki, errepresentaturik gauden era-kustoki zabal bat da. Koloreekin, bolu-menekin eta argiarekin jolastuz gure imajinazioa gainditzea ahalbidetzen duen unea da hau; hartu, eman, begira-tzen ikasi eta artea landuz gozatzeko unea, alegia.



## Sarean ikastetxe publikoetako zuzendariak bildurik Sarean Elkartearen V. Topaketak

**S**arean Elkartek azaroaren 12, 13 eta 14ean burutu zituen bere V. Topaketak, Euskal Eskola Publikoetako Zuzendarien Topaketak, alegia. Elkarte hau eskola publikoetako zuzendaritza alorreko jendea harremanetan jartzeko eta hainbat gai elkarrekin eztabaidatzeko eta lantzeko sortu da.

1996. urteko maiatzean elkartu ziren lehenengo aldiz Zarautzen eskola publikoetako zuzendariak eta aurten-go maiatzean finkatu dira elkartearen estatutuak. Sortze unean 34 ikastetxetako zuzendarik hartu zuten parte. Sarean Elkartearen funtzio nagusiak bi direla esan daiteke:

1) Kanpo-komunikazioa eta ikastetxearen ordezkaritza.

2) Zuzendaritza funtzioaren garapen profesionala irakasleengan.

Lehenengoari dagokionez, ikastetxeen arteko harremanak sortu, daudenak indartu eta hedatzea dute helburu. Eta horrekin batera, ikastetxeen eta Administrazioaren artean maila desberdine-

ko komunikazio bideak garatzea elkarrikeria eta negoziazioa bultzatuz beste erakundeekin batera.

Bigarren funtzioan zuzendarien arteko harremana egongo litzateke. Hau da, zuzendaritza lana burutzen duten profesionalak harremanetan jartzeari nahi dute. Elkarren artean esperientziak trukatzeko gunea sortzeko asmoa dute, ildo honetan. Sarean Elkartearen bultzatzaileen ustez zuzendaritza lanari giza eta profesional mailan ematen zaion garrantzia eta ordain-

saria eskasak dira. Eta horrez gain, gizartetik, Administrazioetik eta eskola komunitatetik eskatzen zaizkion ardurak eta eskakizunak ez datoz bat bere kompetentzia mailarekin.

Oro har, harreman falta nabaritzen dute Elkarteko kideek, gizarteko eta eskola komunitateko kideekin erlaziorik ez dutela (gurasoekin, PATeko aholkulariekin, beste ikastetxeekin...). Harreman guztiak Administrazioarekin dituztenetara mugatzen dira. Eta hutsune hori betetzeko asmoz sortu zen Sarean.





### Topaketen ondorioak

Orain arte Sarean elkarteak landu dituen gaiak bi mailatakoak izan dira:

1) Ikastetxe eta Administrazioaren arteko harremanetarako bitartekoak eta prozedurak, hots, antolakuntza arazoak.

2) Edukiak, zuzendaritza kudeaketarako arazo zehatzak. Arlo honetan, besteak beste, gai hauek landu dira: administrariak, jangelak, lanak, informatika azpiegitura, Eskola Publikoaren kanpo irudia, lantaldeak, prestakuntzaren antolaketa...

Azken topaketa hauetan landu eta eztabaidatu diren gaiak hauek izan dira: 0-2 adinaren eskolaratzea, plantilla ereduak, administrariak, irakasle-riaren beharrak informatika alorrean eta eskola aseguruak.

0-2 adinaren eskolaratzeari buruz, Haur Hezkuntzako lehen zikloko mapa egitearen beharra ikusi dute. Horretarako Sarean, guraso elkarte, sindikatu eta Haur Eskoletako ordezkarien arteko plataforma komunaren beharra ikusi dute. Haurtzaindegia duten lekuetan hauek aprobetxatu beharko lirakeela uste dute, eta ez dauden lekuetan berriak ezarri beharko lirakeela, baina kriterio eta baliabide berdinekin.

Plantilla ereduaren barruan, jorragai izan daitezkeen esparru desberdinak finkatu dituzte: gutxieneko plantilla ereduak, zuzendaritza kredituak eta ikastetxe eredu bakoitzaren gestiorako behar den ordu kopuruaren

zehaztapena, plantilletako espezialisten definizioa, ordezkapenak, plantillen egonkortasuna, giza baliabideen erabilerari buruzko autonomia eta plantillen negoziazio prozesua.

Administrariaren egoera topaketetan jorragai izan den beste gai bat izan da. Lehenengo gauza administraria eta administratzailearen arteko ezberdintasuna argitzea izan da. Administratzailea gerente modukoa izango litzaiteke, ekonomia kudeaketa eramango lukeena. Eta administraria, berriz, bulegaria, bulegoko lana beteko lukeena. Partaide guztiak ados agertu dira ikastetxe guztietan administrariaren beharra dagoela azpimarratzerakoan. Publikatutako ikastoletan administrariak mantetzea eta beste ikastetxeetan figura hori sortzea lortu behar dela

azpimarratu dute.

Informatika alorrean planifikazio falta nabarmendu da. Azpiegitura aldetik, Hezkuntza Sailak izandako portaera salatu dute, agindutako azpiegitura eta materialen zain baitaude oraindik. Horrez gain, programak euskaratzea, sareak eratzea eta arduradunak izendatzea proposatu zuten.

### Hezkuntzako gainerako erakundeen iritzia

V. Topaketa hauetara hezkuntza munduan dauden beste zenbait erakunde gonbidatu zituzten Sarean Elkartekoek: EILAS, CCOO, ELA, LAB, Bizkaiko Guraso Elkarte, Denon Eskolak eta Baikara. Zuzendaritzaren egoerari buruz hitz egiterakoan guztiak zuzendaritza gorpuztu eta hierarkizatuaren aurka agertu ziren. Administariaren beharra ere ikusten dute zuzendaritza lanaren lagungarri gisa.

Bestalde, sindikatuek zuzendaritza lanaren eta sindikalgintzaren arteko muga sarritan ez dutela garbi ikusten adierazi zuten. Guraso elkarteek, berriz, Sarean Elkartearen lanari ez diotela trabarik jarriko esan dute, denon arteko inplikazioaren beharra azpimarratuz.

V. Topaketa hauen ondorioak Sarean Elkarteak argitaratzen duen Publinet aldizkarian kaleratzeko asmoa dute, orain artekoetan egin duten bezala.



KONTSULTA  
TXOKOA

Zuen kezkak  
planteatzeko eta  
zuk ere bestean  
zalantzak  
argitzeko lekua  
duzu.



# Berriak

Bidal itzazu zure galderak edo zalantzak  
irakasle euskaldunon aldizkarira

URTARRILA



## Euskara Zine Aretoetara

Tinko Euskara Elkarteak eta hainbat udalek zinea euskaraz ikusteko aukera eskaintzen digute. Hona hemen non-zer pelikula ikus dezakegun:

**Urtarrilak 3, igandea**  
Billabonako Gurea aretoan  
"Big" 17.00etan

**Urtarrilak 24, igandea**  
Elorrioko Arriola aretoan  
"Jack, Amazonasko errege"

**Otsailak 21, igandea**  
Elorrioko Arriola aretoan  
"Borrowers"

## Eguberri

### Hitza bihotzari, euskara bizitzari

Beasaingo ikastolak Eguberrietarako hainbat ekintza antolatu ditu euskararen erabilera gizartean suspertzeko eta, aldi berean, gure gizartean hitzezko izatearen zentzua indartzeko. Ikastolaren egoera ekonomikoaren larritasuna pixkat arintzea ere helburu dute.

Ekintza guztiak Beasaingo Bernedonean kokatutako 2.700 metro karratutik gorako karpa handi batean burutzen ari dira abenduaren 18az geroztik. Hala ere, zenbait kirol-froga Beasaingo Antzizar kiroldegian, futbol-zelaian, kalean eta udal erakusketa-aretoan burutzen ari dira. Urtarrilaren 3a bitartean oraindik ere bada zer ikusia eta zer entzuna.

#### Abenduak 28-29-30-31

##### Gizaldi baten historia eta eboluzioa

- Arku-tiraketa tailerra.
- Txotxongilo-tailerra.
- Malabarismo-tailerra.
- Trial eta trialsin ikuskizunak.
- Kirol-tresnak.
- Komunikabideak.
- Altzariak.
- Lokomozioa.
- Jolasen eboluzioa.

Arratsaldeko 4etatik 6etara jolas tradizionalak.

#### Urtarrilak 1, ostirala

9.00etan, mendi-irteera. Usurbeko gurutzeraino, mendizale ospetsuen laguntzarekin (besteak beste J. R. Agirre, Iñurrategi anaiak...)

Irteera: Bideluze plazatik.

Arratsaldean Arrokadromoa, puenti-na eta gomina egiteko aukera.

22.00etan kantaldia Benito Lertxundi eta Antton Valverderek.

#### Urtarrilak 2, larunbata

##### Euskal komunikabideen erakustazoka

Bertan parte hartuko dute euskaraz lan egiten duten aldizkari, irrati, telebista eta egunkariak. Eta Interneten dituzten loturak erakutsiko dituzte.

Besteak beste, Argia, Euskaldunon Egunkaria, Hik Hasi, Elhuyar, Goierri-tarra, herri aldizkari eta telebistak, irratia eta abar.

19.00etan Eguberri: arte-egarriz. Euskal Herriko artisten lanen enkantea.

22.00etan Bertso Jaialdi Berezia.

"Ehun urte berrehun bertso"

Narratzaileak: Xabier Euzkitze eta Joxerra Gartzia.

Bertsolariak: Xabier Amuritz, Jon Lopategi, Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Leire Bilbao, Iñaki Murua, Mikel Mendizabal eta Jon Sarasua.

Gidoia: Andoni Egaña.

Musika: Aitor Sarriegiren pautaketa, Izaro Garmendia eta Joantxo Zeberio-  
ren egokitzapenak.

Musikariak: Pello Ramirez, Izaro Garmendia, Joantxo Zeberio eta Edu Salvador.

#### Urtarrilak 3, igandea Ikastolen eguna

Euskal Herri osoko ikastoletako ordezkarien topagunea izango da, musika eta ikuskizunak tartekatuz.

Goizean: Koldo Iparragirrenen Trikitilari Eskolako kalejira. Zubieta eta Baztango Zantantzaren kalejira.

11.00etan Aurtzaka dantza taldearen saioa Loinazko San Martin plazan.

17.00etan Herri kirolak:

- Orio eta Castroko traineruen arteko froga, ergometroztu neurtua.

- Ingalaterra-Suitza-Euskal Herria arteko sokatira froga.

- Emakumezkoen taldeak: Sakana, Berriozar eta Ingalaterrako Bedfordekoak.

- Gizonezkoen taldeak: Suitzatik Stans, Ingalaterratik Felton eta Euskal Herriatik Nuarbekoak.

- Harrijasotzen Iñaki Perurena bere semearekin batera; jarri nahi duten marka berria: 444 kilokoa.

- Aizkolariak: Mikel Mindegia eta Donatu Larretxea, Jose Mari Olasagasti eta Anjel Arrospideren aurka.



# ARGITALPENAK




## LAURA ETA ITSASOA

Felipe Juaristi  
Aizkorri  
argitaletxea  
77 orr.

Aizkorri argitaletxeak euskal edizioaren munduan lehen urtea bete du. Bereziki haur-gazte literatura jorratu du bilduma ezberdinetan. "Laura eta itsasoa" liburua 14 urtetik aurrerako gazteentzat da. Idazleak nerabezaroaren ezaugarri diren aldaketa fisiko nahiz psikikoak sortzen dituzten kezken, ulertezinen eta galderen berri eman nahi digu.

## ASKA ITZAZUE POTTOKAK

Iñaki Frieria Urbistondo  
Ibaizabal  
159 orr.



Gaztaro bildumako 10. liburua da honakoa. Euskal Herriko bazterrak ezagutzera abiatzeko gonbidapen eta aitzaki motibatzailer bezala, abenturak kontatzen dira. Sara eta Zugarramurdiko konba entzutetsuak, Bizkaiko mendebaldean dagoen Pozalagua eta beste hainbat txoko ezagutzeko aukera ematen du hein berean.

## EUSKAL HERRIKO KONDAIRAK

Michel Cosem  
Ibaizabal  
171 orr.



Michel Cosem-ek Euskal Herriko 27 kontakizun bildu ditu liburu honetan. Erraldoiak, jeinuak, maitagarriak, Basajauna, pameriak, Tartalo, lamiak, gizakiak, artzainak, itsasgizonak, lapurrak, printzesak eta beste hainbat pertsonaien inguruko kontakizunak dira.

## PAKO BELEA

Iñaki Zubeldia  
Ibaizabal  
71 orr.



Liburu hau Matxinsalto bildumako 5. alea da. 8-10 urteko gaztetxoei zuzendutako liburua da. Pako belearen eta haur batzuen arteko istorioak kontatzen dizkigu Iñaki Zubeldia idazleak.



## HEZKUNTZAREN NORMALKUNTZA

Lore Erriondo, Xabier Garagorri eta Xabier Isasi  
UEU  
297 orr.

Udako Euskal Unibertsitateak argitaratu duen liburua hau zuzenki hezkuntza munduari zuzendua dago. Hezkuntza, curriculum eta normalkuntza dira aztergai diren gai nagusiak. Hasteko, curriculum eta kulturaren arteko lotura planteatzen zaigu. Ondoren euskal curriculum eta ikasmateria garatzen dira. Liburuan zehar euskal curriculumaren inguruko proposamenak egiten dira. Eta lan hori hizkuntz normalkuntzari buruzko zatiekin osatzen da.

## Kontsulta txokoa

**1.- Irundik guraso batek zera galdetu digu: 5 urteko alaba maiz masturbatzen dela eta ea normala den eta zer egin behar duten gurasoek: zerbait esan, utzi...**

Konturatuko gara haurtzaroan, erotismoz beteriko aroan, adierazpen sexual ugari izaten direla, tartean, masturbaketa saioak. Praktika honek, haurtzaroan dagoen behar sexuala uzten du agerian, eta aipatutako premia sexualak gorputzaren ezagutza eta ludismoa edo gozamenaren bizipena adierazten du. Haurtzaroko bi alderdiok berebiziko indarra dute eta horregatik maiztasun handiz gertatzen dira haurrengan. Nabarmendu behar dugu jokaera sexual hau erabat naturala, berezkoa, beharrezkoa eta garrantzitsua dela sexualitatearen garapenean.

Bestalde, haur batzuk beste zenbaitzuk baino sarriago masturbatu ohi dira eta hau horrela da behar sexualak desberdina direlako pertsona guztiengan, hala eta guztiz ere, haurtzaroan masturbaketa maiz eta edozein lekutan ematen da. Helduok ez dugu ezer esan behar haurrak

masturbatzen ari direla ikusten dugunean, zerbait esatekotan, lagungarri gisa eta onarpen jokabidea dugula adierazi behar dugu: "bai goxoa dela ezta?", "ze polita den zakiltxoarekin edo pottottarekin jostatzea ezta?"

Masturbaketa era konpulsiboan edo erregresiboan gertatzen denean, helduok, zergatik ari den aztertu beharko dugu eta ondoren kausa zuzendu haurrari inoiz ezertaz ohartarazi gabe, esan nahi baita, haur baten gurasoak bereizte prozesuan badaude haurra gaizki sentitzen denez masturbazioan babestuko du bere burua, beraz, helduok ez dugu masturbazio praktika hori eten behar baizik eta egoera horretan ahalik eta lasaien egon dadin ziurtatu behar dugu. Laburbilduz, haurrak masturbatzerakoan lasai utzi.

**2.- Bilbotik irakasle batek: haurrak hondarretan jolasten direnean zikindu egiten dira eta nesken kasuan alua harez gelditzen zaie. Horrek kalte fisikoak ekar al ditza-ke? Sentsibilitate eta harreman sexualen aldetik ondorioak izan al ditzake?**

Haurtzaroan biluztasuna oso jokaera interesgarria eta atsegina da, hondarretan biluzik daudenean haurrek ikaragarri gozaten dute naturaren elementuekin. Bulban eta baginan hondarrak ez du berez inongo infekziorik sortu beharrik, neskato batzuegan gorriuneak eragin ditzake larrazalean oso leuna delako, helduok bakarrik noizbehinka hondarra kendu beharko diegu organu genitalatik baina lasai egon, hondarrak ez die inongo ondotio txarrik sortuko, are gutxiago sexu-harremanetarako sentsibilitaterik kenduko.

Amaia Vazquez

### Kontsulta txokoa

Ireki berri dugun txoko honetan zuen galdera, kezka eta arazoei leku egin nahi diegu. Edozein gairen inguruan kezkarik edo galderarik baldin baduzue, txoko honetara jo dezakezue.

Baina galderak egiteaz gain, erantzuteko aukera ere badago. Beste norbaitek duen kezka argitzeko edo laguntzeko gai zarela ikusten baduzu, idatz ezazu zure erantzuna, aholkua edo proposamena.

Galde-erantzunak eginez elkarri laguntzeko aukera zabaltzea da gure asmoa. Denok daukagu zer ikasia eta edozeinen laguntza beti da eskertzekoa. Gure helbidea honokoa da:

HIK HASI aldizkaria

Zirkuitu Ibilbidea, 2. Pabilioia

20.160 Lasarte-Oria

Gipuzkoa

Tel.: 943 37 15 45

Faxa: 943 37 34 03



## Musika lantzeko beste modu bat: diaporama

Musika, irudia, sentsibiltatea eta sentikortasuna lantzen dituen lana

Ana ETXEBERRIA

Musika irakaslea Iruñeko Askatasuna institutuan



# M

*usikaren historia; Beethoven, Mozart, Chopin, kontrabaxua, tuba, rondo, sinfonia... hau da hau roiloa.*

*Eta ia ikasturte*

*osoa antzinako musikari handien inguruan, beti datuak jaso eta barneratuz, era aktiboagoan edo pasiboagoan, baina beti datuak jasoz. Eta, egia esan, gutxien erakartzen gaituen musika mota ikasiz. Hau izan zitekeen garai batean BBB 1. mailako ikasle baten iritzia eta egungo zenbait ikastetxetako DBHko 3. mailako ikasleena.*

Zorionez, gaur egun egoera hau poliki-poliki aldatuz doa, eta hori da hain zuzen ere musika irakasten dugunon erronka. Baina horretarako sormen handiko irakasleak izan behar dugu eta askotan, zenbait

unetan sormen hori agorturik gelditzen zaigu. Horrelakoetan indarrrik gabe geldi ez gaitzen gure esperientzia berriak trukatzea litzateke hoberena. Horixe da nire asmoa eta horregatik natorkizue esperientzia batekin.

Urte guztian zehar landutako zenbait eduki bateratzeko balio didanez, esperientzia hau azken ebaluaketan kokatu dut. Hemen lan unitatearen azken atala soilik azalduko dut, **diaporama baten muntaia**, hain zuzen ere.

Ikasturte hasieran ikasleei musika gaiaren nondik norakoa azaltzen diedanean, azken lan honen garrantzia azpimarratzen diet, zeren urte guztian zehar landutako eduki asko erabilgarriak izango baitzaizkie diaporama hau egiteko. Bertan, eduki garrantzitsuenetako batzuk entzunaldiak ditugunez, ikasturtearen lehenengo egunetik entzunaldien fitxa betetzen hasten gara.

### Entzunaldien fitxa

Entzunaldien fitxa hau urte osoan zehar entzuten dituzten musika ezberdinekin egin behar duten zerrenda bat da. 1. taulan ikus dezakegun bezala bost zutabez osaturik dago. Hemen oso garrantzitsua da abesti bat aurkitzeko beharrezko ditugun hiru erreferentziak azpimarratzea, hau da, abesti bat edozein fonotekatan edo musika dantan aurkitzeko gutxienez beste bi datu gehiago eman behar dituzte; abeslari edo taldearen izena eta disko horren izenburua. Beraz, hiru datu horiek garbi izan ditzatela. Gero, komentarioa jartzen duen lekuan aipa dezatela musika hori nork ekarri duen, atsegin zaien ala ez, nolako sentsazioa sortzen dien (tristura, alaitasuna, beldurra...), nolako erritmoa duen (martxosoa, lasaia...) eta abar.

Noski, diaporama egiteko orduan beraiek musika barietate handia izan dezaten, urtean zehar musika ezberdin asko entzun behar

# praktikatzen



dituzte. Hor dago irakasleone sormen lana, entzunaldiak egiteko zenbat eta era ezberdin gehiago izan eta aitzakia gehiago aurkitu, orduan eta arreta gehiagoz barneratuko dituzte. Bestela betiko esaldiak entzunen ditugu; "jo, orain berriro hori". Aniztasun horrek, entzuteaz gain, beste helburu ezberdin asko lantzeko aukera emanen digu.

## Gizakiongan ozentasunak duen eragina

Diaporama egiten hasteko lantzen dugun beste gai garrantzitsuenetako bat ozentasuna da. Ozentasuna ikuspuntu ezberdinetatik aztertzen dugu. Eduki hau ere urte guztian zehar landuko dugu hiru atal nagusitan banatuz:

1) Lehenik, gure paisaia ozena aztertzen dugu, honek bide ematen baitugu soinua,

hotsa, zarata, musika eta isiltasun kontzeptuekin lan egiteko, hau da, gure belarriek hauteman dezaketen edozein sentsazioekin. Gure inguruneke ozentasuna aztertu ondoren, ozentasunaren inguruan munduan zehar eginek dauden hainbat ikerketa eta lan ezberdin aztertzen ditugu.

2) Bigarren atalean ozentasunak norberarengan duen eragina aztertzen dugu, nola bizi dugun, zer sortarazten digun... Hau da, gure ozentasunez kontziente eginaraztea, edo ozentasunaren kontzientzia esnaraztea izango litzateke atal honen helburu nagusia.

3) Hirugarren atalean ozentasunaren erabilpen praktikoa lantzen dugu, erabili, aztertu eta landu dugun material ozen guztiekin inprobisaketa eta konposaketa txikien bidez lan ozen praktikoa egiten ditugu.

**Argi utzi nahi dut ozentasuna esaterakoan, soinua, zarata, musika, isiltasuna, hau da, gure belarriek hauteman dezaketen edozein sentsazioz ari naizela.**

Atal bakoitza ez dugu independenteki landuko, baizik eta elkarrekin bateratuz. Atal bakoitza lantzeko jarduera ezberdin asko daude eta guztiak urtean zehar gure programan jorratzen joan behar dugu, gero hirugarren ataleko ekintza bezala diaporama hartzen dugunean benetako lotura bat aurki dezaten bertan erabiltzen dituzten irudi, hitz, musika eta hotsen artean.

Euskal Hiztegi Entziklopedikoak dioenez, diaporama hitza diapositibak eta soinua sinkronizatuz eginiko muntaia da, hau da, ozentasun giroz lagunduriko diapositiba emanaldia.

Horrelako muntaia bat egiteko egokiena hiru edo lau mintegiren bidez egitea izango litzateke: Musika mintegiak musika eta efektuen lanketa; Euskara mintegiak hitza, hizkuntza eta testua; Marrazketa mintegiak irudia eta diapositibak; eta gaiaren arabera laugarren mintegi bat sar daiteke: Natur Zientziak, Giza Zientziak, HIA...

Nire esperientzia bi eratakoa izan da: bakarrik eta beste mintegiekin koordinatuz. Noski, beste mintegiekin elkarlanean arituz emaitza askoz ere aberatsagoa da eta

gure arloa gehiago sakontzeko denbora ematen digu. Baina hori bai, diziplinarreko gai bat bezala antolatzea posible ez bada, bakarrik egitera animatuko zintuzketet. Artikulu honetan bakarrik egiterakoan zerenola moldatu behar dugun azalduko dut. Esperientzia hau 97-98 ikasturtean Larraintzarko ikastetxeke 3. DBHko ikasleekin egin da.

Ikastetxe honetan bakarrik egitea planteatu nuenez, hoberena gertuen bizi dituzten gaietatik abiatzea zela pentsatu nuen, honela dokumentatzen denbora asko gal ez zezaten, diapositibak ateratzea erraza gerta zekiekeen eta abar.

Beraz, lehen aipaturiko puntu guztiak landu ondoren, lanean has gintezke.

## Larraintzarko ikastetxeke esperientzia

### Ikasleek behar dituzten materialak

- Argazki kamara bat.
- Diapositiba roilo bat.
- Kasete zinta garbi bat.
- Entzunaldien fitxa.
- Orriak, boligrafoak...

### Lanaren antolaketa

Lanaren antolaketan bost urrats nagusi jarraitu behar dira:

1. Gaiaren aukeraketa.
2. Gaiaren lanketa.
3. Irudien aukeraketa.
4. Efektu eta musiken hautaketa.
5. Hitz, musika, efektu eta irudien bateratzea.

Urrats bakoitzean egin beharrekoa azaltzera noa labur-labur.

#### 1. Gaiaren aukeraketa

Guztione artean gai posibleen zerrenda luze bat egiten dugu, errealitatearen arabera errazena gertatzen zaizkigun gaiak aukeratuz. Bakoitzak gai bat edo bi aukeratzen ditu eta ahal den neurrian aukeraketa horren arabera taldeak egiten ditugu.

#### 2. Gaiaren lanketa

Gaiari buruzko dokumentazioa biltzen

## 1. taula: Entzunaldi eta kantuen aurkibidea

| Zenb. | Taldea/Abeslaria | Diskaren izenburua | Kantua | Orria | Komentarioa |
|-------|------------------|--------------------|--------|-------|-------------|
|       |                  |                    |        |       |             |
|       |                  |                    |        |       |             |
|       |                  |                    |        |       |             |
|       |                  |                    |        |       |             |



dute. Informazio hori guztia hartu eta gai horren atal ezberdinak zehaztuz eskemati-koki gai horren nondik norakoa azaltzen dute. Ondoren, atal bakoitzean esan eta adierazi nahi dutena zertxobait zehatz deza-tela eskatzen diegu.

### 3. Irudien aukeraketa

Gaiaren nondik norakoa garbi dutenean, adierazi behar dutena hobekien zein irudi-rekin landu dezaketen aztertzen hasten dira. Irudi horiei buruzko zerrenda luze bat egin

ondoren horietatik hoberenak hautatu eta diapositibak ateratzen has daitezke.

### 4. Efektu eta musiken hautaketa

Hasiera batean, beraien gaien erabil dezake-ten musiken zerrenda bat egiten dute, eta gero hauetatik hoberenak hautatzen dituzte, noski, gaia eta diapositiben esanahia hobekien adieraziko duten musikak aukera-tu beharko dituztela kontuan izanik betie-re. Bide batez, musika mota ezberdinak era-biltzen jakin eta ohitu daitezten, musika

mota ezberdinak hautatzearen garrantzia azpimarratuko diegu. Gehiegi nahas edo lanpetu ez daitezen, hasieratik bi, hiru edo lau diapositibarentzat musika berbera auke-ra dezatela gomendatu. Hau da, gaia banatu duten atal bakoitzeko musika bat. Hala ere, badaude diapositiba bakoitzeko musika bat aurkitzen saiatzen diren taldeak. Diapositi-bei adierazgarritasun gehiago ematearren, emanaldian zehar gutxienez hiru edo lau efektu ezberdin sartzeko eskatzen zaie.

## FITXA TEKNIKOA

### 1. IZENBURUA: Baserria.

### 2. TAULA

| Denbora   | Diapositiba Zbk.                     | Esaldiak   | Musika/Efektuak                                   |
|-----------|--------------------------------------|--|---|
| 0:00-0:20 | 1. Herriko paisaia osoa.             | Larraitzar herria Nafarroako Ultzama Udalerrian kokaturik aurkitzen da, hain zuzen ere Ultzama bertako hiriburua dugu.   | Mike Oldfield/Voyager/<br>Dark Islan.             |
| 0:20-0:50 | 2. Baserria urrutitik                | Gaur egun Euskal Herrian hainbat mota aurkitzen ditugu: baserri bizitza izan dutenak eta etxe bizitzan bihurtu direnak, etxez kanpoko lanbide batekin baserriko bizitza tartekatzen dutenak, baserrian hainbat berrikuntza egin ondoren bertatik bizi direnak eta azkenik, hutsik aurkitzen diren baserriak. |   |
| 0:50-1:05 | 3. Baserria gertutik                 | Orain aztertuko dugun baserri honetan eta ikuiluaz at oilategia eta baratza aurkitu, bertako diru iturri nagusia behiaren esnea da.  |   |
| 1:05-1:15 | 4. Behiak larrean                    |  | Naturako efektuak.                                |
| 1:15-1:30 | 5. Behiak ikuiluan sartzen           | Esne bitzailea goizeko sei terdiak inguru pasatzen denez, iluntzean afaldu aurretik jezten dituzte behiak.   | Behien marrua                                     |
| 1:30-1:45 | 6. Behiak jezteko gela               | Ikus dezakezuen bezala, garai batetik hona jezteko era guztiz aldatu da, gaur egun erabat mekanizaturik daukate.   | Kepa Junkera/Trikitixa<br>Zoom/ Eritegiko martxa. |
| 1:45-2:05 | 7. Behi bati titi muturrekoa jartzen | Jezteko prozesu osoan garbitasuna oso kontuan hartzen dute. Lehenik behi bakoitzari produktu batez titi puntak garbitzen dizkiote eta gero, jezteko tresneria jartzen diote.   |   |
| 2:05-2:15 | 8. Behiak jezten                     |  | Jezteko makinaren hotsa.                          |
| 2:15-2:30 | 9. Esne ontzia                       | Gero esne hro hodi batzuen bidez tanke handi batetara iristen da, non bertan esnea hotz mantentzen den eta beso mekaniko bat birakartzen den gainik sor ez dakion.   |   |
| ...       | 10...                                |  |   |

### 3. GAIA (Laburbilduz beste orri batean azaldu behar dute).

### 4. TALDEKIDEAK.



## 5. Hitza, irudia, musika eta efektua

Lanerako lehengai guztiak eskuetan dituztelarik, lanaren muntaiarekin hasteko prest daude. Atal honetan garrantzi handia du irudia eta ozentasunaren arteko sinkronizazio lanak. Gainera, kontuan izanik ozentasuna esaterakoan hiru elementuz ari garela: hitza, musika eta efektuak. Nahiz eta bakoitza bere aldetik prestaturik eraman, zuzeneko emanaldian guztiak batera sinkronizatu behar dituzte, hau da, une horretan ere benetako taldelan koordinatua behar da: alde batetik, diapositiben denbora sinkronizatzen ari dena; bestetik, musikaren intentsitatea kontrolatuz doana; eta bestetik, testua irakurtzen ari dena edo ari direnak.

Lehenik, hitza eta diapositibak elkartuko ditugu, hau da, diapositiba bakoitzean zer esan behar duten eta noski, zein ordenatan. Ez du zertan diapositiba guztietan hitzak agertu behar. Hitza esaterakoan, noski, irakurri behar duten testuaz ari naiz. Irakurketa soil eta triste bat gerta ez dadin, deklamazioa zertxobait landuko dugu, hau da, irakurtzerakoan erabili behar duten adierazkortasuna.

Diapositibaren irudiaren adierazia edo irakurri behar duten testuaren iraupenaren arabera, diapositiba bakoitzak proiektaturik iraun behar duen denbora zehaztu behar dute, hots, bakoitzak zenbat segundo iraun behar duen.

Ondoren, diapositiba bakoitzarekin zein

musika erabili behar duten zehaztu beharko dute, eta zeinetan sartu behar dituzten efektuak. Diapositiben denboraztatzea egina dutenez, horren arabera musika bakoitza zenbat denboraz grabatu behar duten zehaztu beharko dute, gero zinta batean musika guztiak beren iraupen zehatzarekin bata bestearen atzetik graba ditzaten. Hau guztia adieraz dezaten, fitxa teknikoan ikusten dugun bezalako fitxa bat bete beharko dute.

Musikari dagokionez, bi gauza azpimarraraziko dizkiegu: alde batetik, musika aniztasunak entzuleriaren arreta erakartzeko duen indarra eta lanaren atal bat bestetik ezberdintzeko ematen digun laguntza; eta bestetik, zuzeneko emanaldian intentsitatearen erabileraren garrantzia, batez ere musika batetik bestera aldatzeko orduan eta zer esanik ez, hitza edo testua sartzera. Askotan intentsitatea hain gutxi jaisten dute, non testua irakurtzen ari denari zer esaten ari den ez zaion ulertzen.

Efektuei dagokionez, klase oso bat eskaintzen diegu eta amaieran konpaktoak dituen 200 efektuen zerrenda ikasle bakoitzari banatzen diot.

Talde bakoitzaren emanaldiaren egunean lau gauza ditugu beharrezko: diapositibak, kaseta zinta, testua eta talde koordinazio handia hiru elementu horiek ondo uzta ditzaten.

### Ebaluazioa

Lanean hasteko garbi utziko diogu ikasle bakoitzari lan honetan zer baloratuko dugun. Lehenik, eguneroko lana eta taldekidetza, bakoitzak bere taldean duen parte hartzea.

“Urte guztian zehar landutako eduki asko erabilgarriak izango zaizkie diaporama egiteko”

Gero, lana bera baloratuko dugu. Eta zer esanik ez, emanaldiko eguna. Honako hauek dira batez ere kontuan hartuko ditugun puntuak:

- Erabilitako musika ezberdin kopurua.
- Erabilitako efektu kopurua.
- Dokumentazio lana.
- Lanaren iraupena.
- Musika eta efektuen egokitzea irudietara.
- Hitzaren adierazkortasuna, hau da, testua ahozkatzeko eta adierazteko era.
- Intentsitatearen erabilera lanean zehar: hitza agertzen den bakoitzean, musika batetik besterako aldatzetan, sentsazio bereziren bat sortu nahi dutenean...
- Talde koordinazioa eta sinkronizazio maila.

### Helburu eta edukiak


Lan honen bidez eduki eta helburu asko lantzen ditugu, baina batez ere hiru orokorrenak aipatu nahi nituzke: ikasleen inplikazio maila, musika ezberdinetarako hurbiltze kritikoa eta beraien arteko taldekidetze handia.

- **Inplikazio mailari** dagokionez, urte guztian ia ezer egiten ez duten ikasleak ere erabat inplikatzeko dira. Baina hori bai, horren gako gaia erakartzen dagoela uste dut. Normalean gustuko gaia hartzen baitute (edo horretara bideratzen laguntzen diet). Hori horrela izanez gero, buru-belarri sartzen dira gai horretan. Gainera, lan hau oso praktikoa denez, ikasteko esfortzurik ez die eskatzen.

- **Musika ezberdinetarako hurbiltzeari** dagokionez, musika ezberdinetarako irekitasuna lantzen da. Adin honetan gehiengoak musika mota bat edo bi entzuten ditu eta beste musika motak onartzea kosta egiten zaio. Urtean zehar egindako zenbait jardueraren eta lan honen bidez, musika bakoitzak bere lekua duela onartzen dute, eta agian, musika hori irudi batez lagundurik badator atsegin edo entzungarri gerta daitekeela. Musikaren sentsibilitateari dagokionez, izugarria da talde bakoitza zein puntutaraino heltzen den ikustea musikaren aukeraketa egiten hasten denean. Batzuk ia diapositiba bakoitzari musika ezberdin bat jarri nahi izaten diote, irudi horrek adierazia hobeto transmiti dezan.

- **Taldekidetzari** dagokionez, lehenengo egunetik hasten dira beraien artean lan bana-ketak egiten eta elkarrekin koordinatzen. Baina azken egunean, eta zer esanik ez emanaldiko egunean, guztien arteko batasun bat ikus daiteke, guztiek sinkronizazio baten barruan lan egiten baitute. Behin musika martxan jarri gero, ezin dute geratu, eta orduan guztia aldi berean doa aurrera: musika, hitza eta irudia.

# KLASIKOEN KUTXA



EKARANEAN


Egile klasikoen  
obra atseginak

XXI. mendeko  
akordioa

hik hasik ere,



*euskarari*



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN  
KONTSEILUA